

Goienkara

EGUBAKOITZA • 2005eko azaroaren 25a • V. urtea • 222. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a

1830EKO MUSIKA
OÑATIAR BATZUEK
DESKUBRITUTA



OÑATI

Euskal Eskola
Publikoaren 2006ko
jaia hartuko dute /6

MALEN ERRASTI / SEXU-INDARKERIAZ

“Sexu-indarkeriaren aurkako
legea garrantzitsua da baina,
zorritzarrez, ez da nahikoa” /7

DEBAGOIENA

Ibarreko zenbait
lagun ‘Noticias de
Gipuzkoa’-n /5



DEBAGOIENENKO OSPITALEA

Kalitatearen Q saria ospitaleari eta CIMi

Debagoieneko bi erakundeak, CIM hizkuntza akademiak eta ospitaleak, kalitateari errekonozimendua jaso dute astean. Ahizke-CIM akademia da Europako arlo horretako lehen enpresa Urrezko Q saria irabazten. Horrez gain, CIMek zentro berria du, Bilbon, eta teknologia berriak erabiliko dituzte han. Sari banaketa ekitaldia Gasteizen izango da, abendu bukaeran. Bestetik, Debagoieneko Ospitaleko zuzendariak eta 40 langilek eguaztenean, hilak 23, jaso zuten Zilarrezko Q ikurra Gabriel Inclan Osasun Sailburuaren eskutik; argazkian, sailburua eta ospitaleko zuzendaria, Jose Luis Angulo, agertzen dira. /4

ASTEKO GAIA: BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Merkeago bizi izateko aukera

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren aldeko apustua egiten du askok etxebizitzaren merkatuko prezio altuei aurre egin ezinda.

Gure ibarrean hainbat promozio dira abian eta mota honetako beste zenbait etxebizitza ere eraikitzeak dira.

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren gainean hamaika zalantza sortzen

dira Babes Ofizialeko Etxebizitzak zozketa bidez esleitzen dira, eta eskatzaileen izenak zozketa-rako zakuan sartzeko agiriak bete beharra dago.

Bestalde, prezio merkeagoan eskuratu arren zenbait baldintza ditu Babes Ofizialeko etxe baten jabeak: ezin du nola hala saldu, ezin zaie oinordekoei laga.../3

“Epaiketa politikoa” salatu dute 18/98 kasuko lau debagoiendarrek

18/98 kasuan auzipetutako debagoiendar batek, Jose Luis Elkorok, seguru aski datorren aste hasieran deklaratu beharko dela uste dute, orain artekoa ikusita. Epaiketa astelehenean hasi

zen Madrilen, eta Jose Luis eta Iñigo Elkoro, Natale Landa eta Xabier Arregi debagoiendarrek daude auzipetuta. Salatu dute “epaiketa politikoa” izan dela, eta gizarte babesa eskatu dute. /5

Astelehenean, pilota gehigarria

Debagoieneko pilotarien gaineko zortzi orriko gehigarria, Asteleheneko Goienkariaren datoren zenbakia-rekin.



Laino
snow & skate

Volcom
Foursquare
Forum
Jennyus
DC
Nikita
Neff
Special Blend
Electric
Nixon
etc...

www.Laino.info

Bidekurutzeta 7, Bergara, tlf: 943769250 - laino@laino.info

Publizitatea

AZKEN ORDUKO ALBISTEA

Tekazko altzariak aurkitu dira Urretxun

Mota guztietako altzariak enkarguz egiten dituzte

Ikerketa luzeen ondoren, hementxe dakarkizuegu eskusiba handia.

Urretxun daukagun kontaktuarekin elkarriketa asko izan eta gero, guztiok desiratzen genuen informazioa lortu dugu: Urretxun -Azkoitirako irte-

eran-, logelen, egongelen eta bainuen erakusketa berri eta berezia dago.

Astelehenean zapatuta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara dago irekita. Informazio gehiago 943 72 53 26 telefonon.

Etxe merkeagoak gehiagoren esku

Debagoiengan, Babes Ofizialeko Etxebizitzen sei promozio hasiak dira eraikitzen

IRATI AGIRREAZALDEGI

Etxebizitzen merkaturan erosketak egitea garestia da oso; azken urteotan prezioek gora egin dute. Beraz, merkatu horren baitan, aukeran salneurri merkeagoa duten produktuak erostera jotzen dute askok. Babes Ofizialeko Etxebizitzak erostea izan liteke irtenbide bat, gero eta jende gehiagok hautatzen duena. Prezioa beste etxebizitzena baino merkeagoa izateaz gain, eraiki berriak dira gehienak.

Babes Ofizialeko Etxebizitzak eskatzeko, zenbait promoziotan salbu, oinarritzko irizpide batzuk bete behar dituzte eskatzaileek: azken bi urteetan etxebizitza baten jabe ez izatea; azken hamar urteetan Babes Ofizialeko Etxebizitza baten esleipenduna ez izatea edo etxebizitza erosteko laguntza publikorik ez jaso izana; eta urtebete lehenago errolatua egotea etxebizitza eskatu den herrian edo inguruko beste herriren batean.

Bestalde, eskatzailearen diru sarrerei dagokien ere baldintza zehatzak bete behar dira. Etxebizitzen Euskal Zerbitzuan,

Etxebiden, izena emateko, gutxienez urteko 3.000 euroko sarrerak egiaztatu behar dira; gehienezko diru sarrerak, berriz, urteko 33.100 eurotik beherakoa izango dira.

Hala ere, zozketetan parte hartzeko eta etxebizitzako esleipenduna izateko, kasu bakoitzean aldatu egingo dira kopuruak. Esaterako, ez da gauza bera etxebizitza erostea edo alokairuan hartzea. Bestalde, zenbait pertsonarendako baldintza bereziak izaten dira: ezinduedako, guraso bakarreko familiendako edo senide ugariko familiendako.

ESKABIDEAK

Babes Ofizialeko Etxebizitza baten jabe egiteko lehen pausoa Etxebiden izena ematea da. Erregistroa urte osoan irekia egon arren, zozketetan sartzeko epe zehatz bat ipintzen dute, eta behin data hori pasatuta jasotzen diren eskabideak hurrengo urteko zozketetan sartuko dira.

Eskabide orriak eskura daitzke etxebizitzako lurralde ordezkariarekin, bai eta Kutxako, Euskadiko Kutxako eta Vital Kutxako bulegoetan ere.

Eskaera orria betetzerakoan galdetzen dute eskatzailearen eta bikotekidearen gaineko datuak eta etxebizitzan biziko diren gaintzeko bizilagunenak zein diren, zein herri aukeratzeko diren, etxebizitza zein erregimenetan eskuratu nahi den, etxebizitza premia zenbatekoa den eta etxebizitza kooperatibak sortuz gero bertan parte hartu nahi den. Gainera, norberak emandako datu horiek egiaztatze behar

diren agiri ofizialak ere eskatzen dituzte.

Bestalde, zenbait kasu berezitan, aurrez aipatutakoez gain beste agiri batzuk ere aurkeztu behar dira: banandua edo dibortziatua egon eta seme-alaben zaintza norberaren kargu dagoenean; adingabeko seme-alabak norberarekin biziko diren agiria; familia ugaria denean; bikotekidea edo ondorengo titularren bat EAEn errolatua dagoenean;

bikotekidea atzerrian bizi diren euskal gizataldeen kide denean. Izan ere, etxebizitza kopuru bat gordeta izaten da 35 urtetik beherakoendako, guraso bakarreko familiendako eta ezinduedako.

Irabazien gaineko agiriak ere hartuko dituzte kontuan: errentaren aitorpena edo hura egiteko salbuesita dagoeneko agiria; kotizatorik gabeko prestazioren bat jasotzen deneko egiaztaria; beste kontura lan eginez gero lanbizitza agiria eta beharrezko ziurtagiriak pentsioduna izanez gero edo beka jasoz gero.

Babes Ofizialeko Etxebizitza berriak

| Herria | Zonaldea | Etxebizitza kopurua | Egoera |
|--------------|--------------|---------------------|-------------|
| Arrasate | Zerrajera 2 | 100 | Eraikitzen |
| Arrasate | Zerrajera 2 | 100 | Eraikitzen |
| Aretxabaleta | Bedarreta | 20 | Eraikitzen |
| Bergara | San Antonio | 22 | Eraikitzen |
| Eskoriatza | Intxaurtueta | 16 | Eraikitzen |
| Oñati | Ugarkalde | 75 | Eraikitzen |
| Elgeta | Torrealea | 20 | Eraikitzeko |
| Oñati | Ugarkalde | 80 | Eraikitzeko |

ZOKETA

Hala, agiriak aurkeztu eta datuak egiaztatzerakoan, zerrenda batean sartzen dituzte hautagaiak. Eskatzailearen beharrei egokitutako etxebizitzak zozketatzen direnean, izena zakuan sartuko dute. Bada salbuespenik, ordea: batzuetan sustatzaile pribatuek eraikitzen dituzte babes ofizialeko etxebizitzak, eta kasu horietan, gehienetan, sustatzaileak eurak arduratzen dira etxebizitzaren banaketaz.

Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketan lehen aldiz etxebizitza tokatzen zaiona ez dago behartuta



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Bilatu eta aurkitu: Nola bilatu Interneten?

Informazio-iturri itzela da Internet, baina nola bilatzen da **enpresarako erabilgarri izan daitekeen informazioa? Bezeroei, hornitzaileei, eskariei eta eskaintzei buruzko informazioa, gure lehiakideen jardueri buruzkoak, dauden dirulaguntzak eta horiei buruzko informazioa... ezagutzea gure negozioarako mesedegarri izan daiteke.**

Sustatzaileak:







Antolatzailea:



Debagoiena
abendua 1
BERGARA
Miguel Altuna GLBHI
(Elementala)

Orduetgia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:
943 747 314
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com



Arrasaten, Zerrajerako lantegia zegoen tokian babes ofizialeko 200 etxebizitza eraikiko dituzte.

UBANE MADERA

etxebizitza onartzera, baldin eta uko egiten duen lehen aldia bada. Aurrez eskaintzari uko egin bazaio, Etxebideko erregistrotik kanpo geratuko da eskatzailea.

Bestalde, esan dugu Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketa zakuan sartzeko kontuan hartzen direla eskatzailearen diru sarre-
rak, baina gerta liteke, ordea, ego-
era ekonomikoa aldatzea. Etxe-
bizitza errentan hartuz gero,
hasieran baino diru gehiago ira-
bazten badu onuradunak, erren-
ta berrikusi egingo da; ez, ordea,
etxebizitza erositia bada. Berez,
bost urtean behin baldintza eko-
nomikoak aztertu beharko lira-
tekeen arren, neurri hori ez da apli-
katzen.

SALEROSKETAK

Etxebizitzen merkatuan sale-
rosketa dantza handia da oso;
baina babes ofizialeko etxebizi-
tzen kasuan badira zenbait arau.
Gerta liteke erositako etxebizi-
tza inoiz saldu nahi izatea; hala,
etxebizitza horri Eusko Jaurlar-
itzak gehienezko salmenta pre-
zioa jarriko dio. Salneurri horri
ezingo zaio inolako kopururik
gehitu, nahiz eta etxebizitzan
hobekuntzak egiten dirua gas-
tatu izan. Babes Ofizialeko Etxe-
bizitzetzi salneurria ezartzerako-
an oso aldagai zehatzak hartzen
dira kontuan: etxebizitza mota
(soziala, sustapen publikokoa,
itundutakoa edo sustapen pri-
batukoa), azalera erabilgarria
eta zein herritan dagoen.

Bestalde, Babes Ofizialeko
Etxebizitzak ez dira onuradun
suertatu direnen ondare, ondare
publikoa baizik. Bizi den artean
baino ezingo da harena izan; eta
hildakoan ezingo dute etxebizitza
erabili duen oinordekoek erabi-
li; izan ere, saldu nahi denean beza-
la, Eusko Jaurlaritzak berresku-
ratzen du etxebizitzaren jabetza.

*Etxebiden izena
emateko, gutxienez
urteko 3.000 euroko
sarrerak egiaztatu
behar dira*

*Babes Ofizialeko
Etxebizitza lehen
aldiz tokatzen zaiona
ez dago onartzera
behartuta*

*Eskudunaren
oinordekoek ezin
dute hura hildakoan
etxea erabili, ondare
publikoa baita*

Babes Ofizialeko Etxebizitzen
gainean badira mila zalantza,
eta, azken finean, ibarrean ere
sumatzen da eraikuntza dantza.

Etxebizitza batzuk hasiak
dira eraikitzen, Arrasateko
Zerrajerakoak, esaterako. Beste
batzuk aurki dira hastekoak: adi-
bidez, Elgetan, Torrealdean.

Horiez gain, zenbait udalek
aurreikusi dute Babes Ofiziale-
ko beste etxebizitza batzuk egi-
tea euren herrietan: Bergaran,
San Lorentzon; Aretxabaletan,
Deba ibaiatz beste aldera dauden
zelaletan; eta Oñatin, San Mar-
tin auzoan, besteak beste.

ETXEBIZITZEN PREZIOAK

**Babes ofizialekoak libreak baino
gehiago garestitu dira**

Badirudi Babes Ofizialeko Etxebizi-
tzak (BOE) etxebizitza libreen bidetik
doazela prezioen igoerari dagokio-
nez. Aurten, urte hasieran igoera
%5,4koa izan zen iazko urte amaiera-
ko datuekin alderatuz gero. Euskal
Herria igoerarik handienak izan
dituen lurralde autonomoen artean
dago; eta Euskal Herrian dute Babes
Ofizialeko etxebizitzek preziorik
altuena; metro koadroa 1.158 euro
ordaintzera iritsi gaitezke.

'ETXEBIZITZA GUZTIONTZAT!'

**Aurrekontu justuak eskatu dituzte
etxebizitza eskubidea bermatzeko**

Etxebizitza Guztiontzat! Plataformak
etxebizitza eskubidea bermatzeko
aurrekontu justuen aldeko kanpaina
egiten dihardu. Plataformak dio
"EAEko eta Nafarroako gobernuek
Barne Produktu Gordinaren %0,3 eta
%0,5eko ahalegina egiten dihardute-
la alor horretan, bestelako gastuei
lehtasuna emanez. Gabezia "inber-
titzeko borondaterik ezean" dagoela
diote. Eskaria udaletara eta aldun-
diara ere bidali dute.

IRUZURRA

**Jaurlaritzak 600 etxebizitzatan
iruzurrak aurkitu ditu**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sai-
lak iruzur kasuak atzeman ditu 2004-
2005 urteetan ikuskatutako babes
ofizialeko 600 etxebizitzatan (%8).
Iruzurrik ohikoenak dira baldintzak
bete gabe etxebizitza saltzea edo eros-
tea; jabea ez den norbaiti erabiltzan
uztea; eta etxe horietan ez bizitzea.
1.200 eta 6.000 euro arteko isunak
ipiniko dituzte 200 kasutan. Asmoa
da bost urtean EAEko Babes Ofiziale-
ko Etxe guztiak ikuskatzea.

BIZIGUNE PROGRAMA

**Hutsik dauden etxebizitzak
beharra duten herritarrei alokatu**

Etxebizitza ahalik eta gehien aprobe-
txatzeko eta alokairuko etxebizitza
sustatzeko Bizigune programa dago
abian. Programaren helburua da
EAEn inoiz erabili ez diren eta mer-
katuan salgai edo errentan emateko
jarri ez diren ia 30.000 etxebizitza
hutsei erabilgarritasuna ematea.
Ibarrean bost herrik egin dute bat
programa horrekin: Eskoriatzak,
Arrasatek, Bergarak, Aretxabaletak
eta Oñatik.



BergaraCars



Zure konfiantzazko multi-marka kontzesionarioa

BMW X3 2.0 BERRIA
BMW 120 D BERRIA
BMW 320 I BERRIA
MINI COOPER 115 ZP .. BERRIA
MB ML 320, 350 BERRIA
AUDI A6 3.0 BERRIA
BMW M3 2002

Aitziturri 1 • Bergara
T: 943 76 18 71 • F: 943 76 58 22
www.bergaracars.com
bergarcars@yahoo.es

BMW 320 D 2005
BMW 320 D TOURING M. . 2003
BMW 330 D TOURING M. . 2003
VW TOUAREG RS 2004
VW TOUAREG V10 2004
AUDI A4 2.5 TDI S.LINE . . 2003
VW PASSAT TDI 130 ZP . . 2003



CIMek zentro berri bat du Bilbon. Argazkian, Adelaida Maidagan, CIMeko zuzendaria; Jesus Catania, eta Iñaki Azkuna

CIMek eta ospitaleak urrezko eta zilarrezko Q sariak jaso dituzte

CIMek Urrezko Q saria irabazi du, eta ospitaleak, zilarrezkoa

LEIRE KORTABARRIA

Ibarreko bi erakunde Kalitatearen Q saria irabazi dute astean: Debagoieneko Ospitaleak Zilarrezko Q saria jaso du, eta Gabriel Inclin Osasun Sailburuak eman zien, joan den eguaztenean. CIM hizkuntza akademiak Urrezko Q-a jaso du.

Ahizke-CIM hizkuntza akademiak Urrezko Q saria jaso du, Euskalit-ek, Kalitatearen Euskal Fundazioak, emanda. Honen berezitasuna da Europako lehen hizkuntza irakaskuntza zentroa direla maila horretako kalitate saria lortzen. Sari-banaketa ekitaldia oraindik ez dute egin; abendu bukaeran izango da, Gasteizen, Buesa Arena egoitzan.

Horrez gain, CIM akademiak eskola berri bat zabaldu du. Bilbon zabaldu dute, eta Mondragon Lingua du izena. Urriaren 25ean inauguratu zuten Bilboko alkatetxak, Iñaki Azkunak, eta MCCko presidentetxak, Jesus Cataniak.

OSPITALEARI, ZILARREZKO Q SARIA

Bestalde, Debagoieneko Ospitaleko langileek Zilarrezko Q saria jaso zuen joan den eguaztenean Gabriel Inclin Osasun Sailburuaren eskutik. Ekitaldi bere-

Europako lehen hizkuntza akademia da Ahizke-CIM Urrezko Q saria irabazten

Debagoieneko Ospitaleko 300 langileei Zilarrezko Q ikurra eman berri diete

zia egin zuten, eta Inclanek sari bana eman zien ospitaleko zuzendariari eta 40 bat langileri, lantalde osoaren izenean. Izan ere, errekonozimendua ospitaleko 300 langileendako da, eta datozen egunotan banan-banan jasoko dute ikurra beste guztiek.

Zilarrezko Q ikurra ere Euskalit-ek, Kalitatearen Euskal Fundazioak, ematen du, eta kalitate kudeaketan egindako lana errekonozitzen dio ospitaleari. Berau lortzeko, sei ikuskariren azterketa bat gainditu behar izan zuten azaroaren 16, 17 eta 18an, eta ospitaleko hainbat langilek parte hartu behar izan zuten. Horiei eskerrak eman die zuzendaritzak.

Arduradunek pozik jaso dute aitorten hori, eta 2004. urtean egindako lana honela baloratzen dute: "2004. urtea oso nabarmena izan da kalitatearen kudeaketan. Azterketa pasa zuten profesionalen ekarpena, egunerokoa eta azterketa egunetakoa, eskertu nahi dugu".

Mondragon Unibertsitateak aldizkari berria atera du

'MUniversitas' du izena eta hiruhilabetekaria izango da

GOIENKARIA

Mondragon Unibertsitateak bere lehen argitalpena atera du: **MUniversitas**. Unibertsitatearen, ikasleen eta ekonomia eta enpresa arloaren topagune izan nahi du. Arteman Komunikazioak daramatza diseinua eta publizitatea.

MUniversitas hiruhilabetekaria izango da, eta hiru hizkuntzatan dago: euskaraz, espainolez eta ingelesez. Lehenengo zenbakian, Mendeberriren gaineko erreportajea; Lander Belokiri, Enpresa Zientzien Fakultateko dekanari, elkarrizketa; kanpus bakoitzaren gaineko albisteak... batzen ditu.

Bi helburu ditu aldizkariak: batetik, unibertsitatearen, ikasleen eta ekonomia eta enpresa arloaren arteko topagune izan nahi du; bestetik, MUko ikerkuntza proiektuak, eskaintza akademikoa... aurkeztuko ditu.

Unibertsitateak egiten du aldizkaria, eta Arteman Komunikazioak egin ditu diseinua eta publizitatea.



Aldizkariaren lehen zenbakia.

IKASKETA AMAIERAKO SARIA

Mondragon Unibertsitatea albiste izan da ere hango 10 ikaslek Kutzak ematen duen Ikasketa Amaierako Saria irabazi dutelako, tartean Nerea Uriarte, Ane Miren Aizpeurrutia eta Maider Arrizabalaga debagoiendarrek. EHUn ikasi duten Olaia Jimenez eta Ana Hernandez debagoiendarrek ere irabazi dute saria.

DEBAGOIENEAN LABUR

Eskoriatzan hilda agertu den gizonezkoari autopsia egingo diote laster Donostian

Eskoriatzan zenbait egunetan desagertuta zegoen gizonezkoa, Abraham Iglesias Lasa, hilda agertu zen atzo, eguena, eta Donostiaran eraman dute hilotza, han autopsia egiteko; horrela, argitu nahi dute zelan hil zen.

Eskoriatzako bizilagunaren bila Santa Ana auzo gainaldean jardun zuten Ertzaintzak eta Gurutze Gorriak, txakur bilatzaileen laguntzarekin. Intsulinarekin tratamenduan zegoen, eta "oso metodikoa" zen horrekin. Familiak eguaztenean ipini zuen desagertuaren salaketa.

Palestinar-israeldar ordezkariak batek hitzaldia egingo du astelehenean

Alternative Information Center (AIC) taldeko palestinar-israeldar ordezkariak Arrasaten izango da astelehenean, hilak 28, eta hitzaldia egingo dute San Viator Txikin 19:00etan. AIC hainbat israeldar eta palestinarrek osatzen dute, eta giza eskubideen eta gatazkaren konponbide baketsuaren alde lan egiten dute.

Pobrezia Zero taldeak dioenez, "aukera paregabea da hau palestinar herriaren egoera eta gatazkaren azken berriak hango jendearen eskutik jasotzeko".

4
zenbaki DOAN

Jaso doan **Asteleheneko Goienkaria** lau astez. Gustukoa baduzu **Asteleheneko Goienkaria** jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta.



Eskaintzaz baliatzeko:

902 36 38 51

Asteleheneetik egubakoitzera,
09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Orain arte bezala badoa 18/98 auzia, Jose Luis Elkoro laster epaituko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Lau debagoiendar daude inputatuta 59 euskal herritarren aurkako 18/98 auzian. Epaituta astelehenean hasi zen Madrilena, eta, gauzak orain arte bezala joaten badira, Jose Luis Elkoro datorren astean epaituko dute.

Astelehenean hasi zen, Madrilgo Casa de Campon, 18/98 auziko epaiketa. Guztira, 59 euskal herritar epaituko dituzte, tartean lau debagoiendar: Jose Luis Elkoro, Xabier Arregi, Iñigo Elkoro eta Natale Landa.

Epaietak orain arteko bidea jarraituz gero, litekeena da Jose

Luis Elkorok datorren astean hasieran deklaratzeko; gainontze-koak epailearen aurretik noiz pasatuko diren jakiterik ez dago oraindik.

Bost atal ditu sumario honek: enpresen kontrakoa; Orain, Egin egunkariaren argitaletxearen aurkakoa; eta Xaki, Ekin eta Joxemi Zumalabe erakundearen aurkakoa.

Sumarioan auzipetutako Iñigo Elkoro abokatu bergararrak esan digunez, "epaiketa politikoa da, eta ez gure aurkakoa, Euskal Herri osoaren aurkakoa baizik. Lehen egunean garbi utzi ziguten euren jarrera. Azalpenak emateko orduan isilarazi gintuzten; eta horrela euren beldurra agerian geratu da".

BABESA

Epaietaren lehen egunean Euskal Herriko eragileek babesa eskaini zieten inputatuei, senideekin batera. Debagoienetik, besteak beste 18/98+ taldeko Maite Aristegi eta Aralarko Xabier Sarasua joan ziren Madrilera.

Maite Aristegiren esanetan, "epaietak luze joko du, eta babesa ematea beharrezkoa denez, oraingoz zapatuan kontzentrazioak egingo ditugu Euskal Herriko hiriburuetan".

"Gu Euskal Herriaren ordezkari gisa hartu gaituzte; eta euskal gizarteak erantzun egin behar dio jarrera horri, gizarteak hesia egiteko ardura du", esan digu Iñigo Elkorok.



ARIZMENDI IKASTOLA

Gureko irakaskuntza kooperatibetako hiru lagun Finlandiako ikastetxe bat bisitatzeko.

Ikastetxe-kooperatiben I. Biltzarrean, ibarreko zortzi

EAEko ikastetxe-kooperatibak Bilbon batzartu dira

GOIENKARIA

Debagoieneko zortzi ikastetxe parte hartu dute Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioaren lehen Biltzar Nagusian, EAEko beste 67 ikastetxe kooperatibekin batera. Azaroaren 17an eta 18an egin zuten biltzarra Bilboko Euskalduna jauregian.

Debagoieneko honako ikastetxeak egon ziren biltzarrean: Eskoriatzako HUHEZI; Arrasateko Ahizke-CIM eta Mondragon Eskola Politeknikoa; Oñatiko ETEO eta Txantxiku Ikastola; Bergarako Aranzadi Ikastola eta Haurtxoa Haurtzaindegia; eta Leintz baila-

rako Arizmendi Ikastola. Guztira, 13.000 ikasle dituzte matrikulatuta, eta 5.000 bazkide dituzte.

Irakaskuntza-kooperatibek gizarte bateratzen egiten duten lanaz hausnartu zuten biltzarrean, eta gai estrategikoak landu zituzten. Biltzarrean egon ziren ere Jose Antonio Campos Hezkuntza sailburua, Pedro Miguel Etxenike eta Alvaro Marchesi.

FEDERAZIOAREN HELBURUAK

Federazioak kooperatiba titulartasuna duten EAEko ikastetxeak ordezkatzeko ditu. Bi egin-kizun nagusi ditu: euskal kooperatibismoan zuzenean parte hartzea, eta hainbat sektorekin lankidetzatza bultzatzea.



XABIER ARREGI

BERGARA

SUMARIOKO ATALA: Ekin.

AKUSAZIOA:

Erakunde armatuko kide izatea egotzen diote.

FISKALAREN ESKARIA:

12 urteko kartzela zigorra eskatzen dute.



NATALE LANDA

ARRASATE

SUMARIOKO ATALA: Ekin.

AKUSAZIOA:

Erakunde armatuko kide izatearen akusazioa du.

FISKALAREN ESKARIA:

12 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak.



JOSE LUIS ELKORO

ELGETA

SUMARIOKO ATALA: Orain.

AKUSAZIOA:

Erakunde armatuen egotea; Giza Segurantzaren aurkako delituak, besteak beste.

FISKALAREN ESKARIA:

48 urteko kartzela zigorra.



IÑIGO ELKORO

BERGARA

SUMARIOKO ATALA: Xaki.

AKUSAZIOA:

Erakunde armatuko kide izatea leporatzen diote.

FISKALAREN ESKARIA:

12 urteko kartzela zigorra eskatzen dute beretako.

Goienak Bai Euskarari ziurtagiria jaso du Kontseiluaren eskutik

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kontseiluak euskararekiko konpromisoa ziurtatzeko Bai Euskarari agiria eman dio Goienari. Azterketa egin ostean, bost atalak egoki betetzen dituztela egiaztatu du.

Bai euskarari ziurtagiriaren bidez, enpresek, saltokiek eta erakundeek euskararekiko duten konpromisoa ziurtatzen du Kon-

seiluak. Goienak maila gorenean eskuratu du ziurtagiri hau.

Kontseiluak bost ataletan aztertzen du erakundearen gaitasuna: kideen hizkuntza gaitasuna, irudi korporatiboa eta hizkuntza, kanpo harremanak, barne harremanak eta programa informatikoak.

Hauek guztiak aztertu ondoren Kontseiluak, *Guk zerbitzua eta lana euskaraz* ziurtagiria eman dio Goienari.

KONPROMISOA

Kontseiluaren helburua da ahalik eta enpresa gehien euskararen aldeko konpromisoetara erakartzeko Bai Euskarari ziurtagiria eskuratuz. "Ziurtagiri honen bitartez enpresek neurri zehatzak hartu eta euskararekiko konpromisoa adierazten diote gizarte osoari. Lan munduan euskararen normalizazioan aurrera egiteko, gure enpresaren parte hartzea beharrezkoa da".

ANBOTOSTE

Sukalde Begetarianoa

Eguneko Menua, Entsalada Buffeta, Arrazioak,

Plater Bereziak, Pita Bokatak, ...

Pizzak, Crepak, ...

Teak, Infusioak, Zuku Naturalak, ...

ELIKATU ZAITEZ
ERA OSASUNTUAGO
BATEAN

Larrea Plaza, 2
Tel.: 943 79 79 49

20500 ARRASATE
(Gipuzkoa)



Interioristak

Oihana Plaza
&
Oihana Beristain

- Barne arkitektura eta lokalen proiektuak eta berrikuntzak
- Obra zuzendaritza
- Erakusleihen apainketa

616 84 55 96

Debagoiendarrak 'Noticias de Gipuzkoa' egunkari berrian

GOIENKARIA

Eguenetik kioskoetan da *Noticias de Gipuzkoa* egunkari berria. Debagoienak ere izango du lekua bertan; bai albisteei eta bai herritarrei dagokienez.

Gipuzkoako hedabideen artean sumatutako hutsune informatiboa betetzeko sortu eta kaleratu dute *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria komunikabide berriko arduradunen esanetan.

ZELAIA, ADMINISTRAZIO KONTSEILUAN

Juan Zelaia oñatiarra egunkari berriko Administrazio Kontseiluko kidea da. Bere esanetan, "egunkariarekin hondar ale bat ipiniko dugu hain konplexua den errealitate hau argitzeko".

Debagoienak egunero orri bat izango du 96 orriko egunkarian; Anabel Dominguez da arduraduna. Bestalde, kolaboratzaile lanetan jardungo dute Bergarako Virginia Imazek eta Felix Iriarte aretxabaletarrak



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 297

ARETXABALETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045



SEIN
grupo taidea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

ANTZUOLA

Luis Anduaga omenduko dute Santa Zeziliaren ospakizunetan

Asteburuan ospatuko dute Santa Zezilia eguna herriko musikariek. Bihar, zapatua, Garua taldearen kontzertua izango dugu, 18:30ean, Antiguako basilizan. Azkeneko piezetan Antzuolako abesbatzak ere parte hartuko du.

Domekan, berriz, meza nagusian, 11:30ean, Luis Anduaga parrokiako abesbatzaren zuzendaria izandakoari omenaldia egingo diote. 40 urtetik gora egin ditu Luisek zuzendari lanetan. Antzuolako abesbatzak, parrokiakoak, dantzariak eta txistulariak parte hartuko dute hantxe. /A.I.



MIKEL LUPIANEZ

ARRASATE

Gabonetako kanpaina berezia, merkataritza indartzeko

Ibai Arte merkatarik elkarrekin abiarazi du kanpaina. Bezeroak saritzeko eta merkataritza promozionatzeko antolatuko du. Hala, elkarteko saltokietan erosketak egitearren txartelak emango dizkie bezeroei, urtarrilaren 7an egingo duten zozketan parte hartzeko. Hiru sari prestatu dituzte: itsas bidaia Mediterraniotik; 500 euro elkarteko saltokietan gastatzeko eta asteburuko egonaldia Gatzagako Gaztainuzketako txaboletan. Zozketarako txartelak emateaz gainera, inkesta bat betetzeko eskatuko diete bezeroei. Galdetuko diete zein iritzi duten herriko merkataritzaren gainean, zein gabezia ikusten dituzten eta zer egin daitekeen hobetzeko. Hori guztia, Ibai Arteko ordezkariaren esanetan, herritarrek ikus dezaten Arrasaten badela merkataritza "betikoa, gertukoa eta konfiantzazkoa". /U.M.

ARAMAIO

Hegazti-gripeari aurrea hartzeko analisiak egingo ditu Diputazioak

Araba guztian analizatuko dituzte hegaztiak, baita ere baserrietan autokontsumorako besterik ez diren hegaztiak eta itxian hazitakoak. Hala, Aramaion, oilo, oilasko edo ahateak dituzten guztiek Udalera jo beharko dute azaroaren 30a baino lehen. Han, datuak hartu eta txanda emango diete. Eta hemendik otsailera bitartean, Arabako Foru Aldundiko teknikariak joango zaizkie etxez etxe hegaztien laginak hartzera. Horrez gainera, agertzen diren hegaztien gorpuak ere aztertuko dituzte. /U.M.

ELGETA

Saihesbidearen lehenengo zatia, azaroaren 30ean inauguratzekotan

Izan ere, 30 urtez zain egon ostean, saihesbideko lehenengo zatia inauguratzear dira; azaroaren 30erako dago iragarrita irekiera. 500 metroko luzera izango du zati horrek. Kanpazartik datorren bidean hasi eta herria kanpotik zeharkatuz kiroldegia ondoan egin duten biribilgune-raino 411 metro ditu eta beste 95 biribilguneetik Eibar alderako adarrean. Saihesbidea egitearen helburu garrantzitsuena da herri barruko zirkulazioa arintzea, batez ere Salbador kalekoa. /I.A.

OÑATI

Euskal Eskola Publikoaren jaia Oñatin egingo dute 2006an

Euskal Eskola Publikoaren jaia Oñatin egingo dute datorren urtean. 2006ko ekainaren 4an izango da.

Errekalde Herri Eskolako guraso elkarrekin eskaera egin zuen joan den ikasturte bukaeran 2006ko jaia Oñatin egiteko. Baie-tza jasotakoan, ordea, festa eskualde osora zabalduraz izan dute Goieskolaren bitartez. Horrela, nahiz eta eskaera Oñatiko guraso elkarrekin egin eta festa Oñatin egingo duten, Debagoinen osoko Eskola Publikoaren jaia izango da.

SEI GUNE

Dagoeneko erabaki dute sei gune jarriko dituztela, leku hauetan: Institutuan, San Martin egoitzaren aurrean, plazan, frontoian, Santa Marina plazan eta Etxaluzen. Udalaren oniritzia jaso dute, eta hemendik aurrera banatu egingo dute hasierako lantaldea: batzuek aparkalekuak non jarri aztertuko dute, beste batzuek guneetan ze eki-

taldi jarri erabakiko dute eta beste batzuek hainbat lan egingo dute. Errekaldeko Herri Eskolako guraso elkarrekin kideek, Baitara elkarteko eta Errekalde Herri Eskolako zuzendaritzako ordezkariak eta ikastetxeko gurasoek hartzen dute parte bileretan, eta eurek antolatuko dute Euskal Eskola Publikoa aldarrikatzeko jaia, 2006ko ekainaren 4an.

Aurten Araban egin dute Euskal Eskola Publikoaren jaia, eta 2006koa Gipuzkoan egitea tokatzen da. Hori jakinda egin dute eskaera Errekalde Herri Eskolako gurasoek. /O.E.

Zertzelada

Dagoeneko erabaki dute sei gune jarriko dituztela, eta orain hasiko dira guneetako ekintzak prestatzen eta aparkalekuak topatzen

BERGARA

Gizarte pentsamendua aztertuko dute Herri Eskoletan abenduan

Herri Eskolen barruan *Gizarte pentsamenduari* sarrera izango dute aztergai abenduaren 15era bitartean. Azaroaren 29an *Kapitalismoaren oinarriak* hitzaldia egingo du Ainara Udaondok eta abenduaren 1ean Ariane Kareagak *Sozialismoak* izango ditu aztergai. Hitzaldiok kultura etxean izango dira,

19:00etan. Era berean, azaroaren 30erako *Goodbye Lenin* filma iragarri dute Etxagin, 19:00etan.

Euskal Herriko historia aztertu ondoren, gizarte pentsamendua landuko dute Herri Eskoletan. Izenematea 695 72 64 94 telefonoan. Argibide gehiago www.herrieskolak.org webgunean. /E.M.



ARTXIBOA

Sozialismoaren gaineko hitzaldia izango da abenduaren 1ean.

ARETXABAETA

Urkulu ingurua dotoreago jartzeko ia 205 mila euro erabiliko dituzte

Naturgintza fundazioarekin proiektua egin du Udalak Urkulu urtegi ingurua biziberritu eta dotoreago jartzeko. Informazio panelak jarriko dituzte, animalia ikusteko bi behatoki, ahateek habiak egiteko uhartetxoak, gutxituek arrantzan egiteko leku bereziak, behatzeko dorretxo bat eta urpean geratutako baserrien omenezko monumentua.

Astean kaleratu dute hori guztia egiteko lan deialdia: 204.745 euro ordainduko ditu Udalak eta hiru hilabeteko epea ematen du bukatzeko. /M.A.

ESKORIATZA

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunaren estreinaldia

Bihar, zapatua, Pirritx eta Porrotx pailazoek *Maite zaitut* izeneko ikuskizuna estreinatuko dute kiroldegian, 17:00etan. Axtroki euskara elkarrekin antolatu du. Bezperan eskainiko dute lehenengo aldiz, eta Eskoriatzan egingo dute bigarrena.

Honako hau Eskoriatzara doazen zortzigarren aldia da, eta zortzi bost urteotan estreinaldiak egin dituzte herrian.

Maite zaitut lanak ume batzuek ijitoenganako dituzten aurreiritziak aldatu gura ditu. Sarrera mugatuak aterako dituzte. /I.B.

LEINTZ GATZAGA

Jende asko WiMax sistemaren gainean informatzeko batzarrean

Astehenean izan zen Euskalteleko ordezkari Luis Mari Murua Gatzagan, WiMax sistemaren gainean argibideak ematen. Eta jende asko joan zen batzarrean, herriak komunikazioetarako dituen zailtasunak gainditzeko irtenbide bila.

GAZTEEN PARTIDUAK ATZERATUTA

Astebururako eguraldi txarra iragarri dute, eta Arrasateko eta Gatzagako pilotako sailen arduradunek erabaki dute gazte-txoen pilota txapelketa atzeratzea. /X.U.

Emakumearen gaineko indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da gaur, azaroak 25. Jaurlaritzaren arabera, egunero 11 emakumek jartzen dute salaketa. Abenduan beteko du urtebete indarkeria mota horren aurkako legeak.

OIHANA ELORTZA

Oraingo astean emandako datuek diote erasoan %30 baino ez dituztela salatzen. Zergatik horren gutxi?

Gaur egun, hala ere, emakume gehiagok jartzen dituzte salaketak lehen baino. Batetik, oso gogorra da norberaren bikotekidea izan dena salatzea. Beste alde batetik, ikusi behar da emakume horrek zein egoera ekonomiko duen bizitza antolatzeke, eta seme-alabak ere badituzte askok. Etorrinak diren emakumei edo urritasuna dutenei, adibidez, gehiago kostatzen zaie salaketa jartzea. Horrez gain, emakumeoi beti hezi gaituzte etxeko giroa baretzeko, denekin harreman onak izaten saiatzeko; eta horregatik, emakume askok uste izaten dute euren lana gaizki egin dutela etxeko egoera okertu egin dela ikusita.

Salatu egin behar dira egoera horiek?

Guk sala dezaten nahi dugu, horretara bultzatzen ditugu, baina hori ez da garrantzitsua. Garrantzitsua da emakumeak jakitea nora joan behar duen egoera konpontzeko.

Zenbat salaketa jarri dituzte Debagoienan?

Arrasaten, adibidez, 13 salaketa jarri zituzten joan den urtean. Beste herrietako datuak ez ditut. Hala ere, jakinekoea da tratu txarrak eta erasoak gehiago direla. Gainera, eraso dela esaten dugu marka fisikoren bat ikusten denean, baina tratu txar psikologikoak ere badaude, horren argi ikusten ez badira ere.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako legeak urtebete egingo du abenduan. Zer babesten du lege horrek?

Mugimendu feministak urtetan salatu ditu egoera horiek, eta lege bat eskatzen zuen arazoari aurre egiteko. Legea pauso garrantzitsua da, baina ez da nahikoa.

Zer falta zaio?

Legeari egiten zaion kritiketako bat da asko oinarritzen dela zigorrean. Emakumeen aurkako indarkeria zigortu egin behar da. Hala ere, Espainiako Emakumearen Institutuak dio bi milioi emakumek jasaten dituztela tratu txarrak; horrek esan nahi du beste horrenbeste gizon daukela tratu txarrak ematen dituztenak. Lagun batek norbait hiltzen badu, zigorra jasoko du eta listo, baina emakumeen kontrako indarkeriaren arazo honetan, ordea, ezin gara bakarrik heriotzekin gelditu, sexu indarkeria, tratu txar fisiko eta psikologikoak eta antzerakoak ere badaudelako. Legeak dio erasotzailea espetxean dagoenean aukera duela terapia baten parte hartzeko, jarrera aldatzeko. Hori dela eta, nik uste dut terapia horrek zabala izan beharko lukeela.

Legeari egiten diotan beste kritika bat da eraso egin dioten emakumeari laguntzeko jartzen diren bide guztiak salaketa jarri ondoren jartzen dituztela abian. Uste dut legeak malguagoa izan beharko lukeela eta tratu txarrak jasotzen dituzten emakume guztiak babestu beharko lituzkeela.

Zenbateraino babesten du emakumea lege horrek?

Eskubideak jasotzen ditu, baina epai-learen esku gelditzen da gero gutzia. Adibidez, aste honetan bertan esan dute Bizkaian epaileek ez dituztela onartzen babes



O.E.

Malen Errasti

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO PLATAFORMA MISTOA

“Legea pauso garrantzitsua da, baina, zoritxarrez, ez da nahikoa”

EMAKUMEARI LAGUNTZEKO

“Protokolo bat jarri gura dugu abian, horri esker emakumeak laguntza aurkitzeko edozein tokitan; plan hori eskualde osoan jarri gura dugu, Makomunitatearen bitartez”

PREBENTZIOA

“Berdintasunean hezi behar ditugu umeak, baina ez ikastetxeek bakarrik, gizarte osoak baizik; emakumeak sufritu arren, gizarte osoaren arazoa da indarkeriarena”

bidez, aste honetan bertan esan dute Bizkaian epaileek ez dituztela onartzen babes

Salaketa jarritakoan dena abian dago, baina oso garrantzitsua da, eragile judizialek ez ezik, tratu txarrak jaso dituen emakumeak berak hitz egitea, esatea zer behar duen, nola dagoen, erabakiak emakumeak berak hartzea.

Zer lan egiten du Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Plataforma Mistoak?

Duela urtebete inguru sortu zen, Arrasaten, eta herritarrok osatzen dugu. Talde zabala da, gainera, eta edonor etor daiteke, bai laguntza eske, bai informazio bila, bai taldeko kide izatera.

Hasteko, jendeak arazo horrekiko duen kezka eta ondoeza bideratu nahi du plataformak. Kontzentrazioak egiten ditugu, adibidez. Aurten, bereziki, emakumearen aurkako indarkeria aztertzen aritu gara; Arrasateko Udalak ere egin du emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako

plan bat. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumei lagundu egiten diegu eta prebentzio lanak lantzen ditugu.

Nola laguntzen diezue tratu txarrak jasan dituen emakumeari?

Guk gura duguna da tratu txarrak edo sexu erasoak jasan duen emakume batek laguntza topatzea joaten den tokira joanda. Hau da, udaltzainengana, epaitegira edo beste edozein lekutara joaten bada, lagundu egingo diotela ziurtatzea.

Aztertu egin dugu Arrasaten nola dagoen egoera tratu txarrak edo eraso sexualak jasan dituen emakume bati laguntzeko. Esaterako, hitz egin dugu epaitegikoekin, osasun zerbitzuekin eta udaltzainekin, besteak beste, eta ikusi dugu errealitatea oso urria dela, oso pobrea. Emakume horrek nekez aurkituko duela laguntza batean edo bestean.

Orain protokolo bat jarri gura dugu abian, horri esker emakumeak laguntza izateko edozein sail edo departamentutan; emakumeak ez dezala azaldu behar gertatu zaiona lehenengo leihatila baten eta gero bestean.

Aurkeztu duzue zuen plan hori Arrasateko Udalean?

Urtarrilean egingo dugu. Horrekin batera arazo hori konpontzen lagunduko duten neurri batzuk ere aurkeztuko ditugu. Izan ere, uste dugu Arrasaten egoitza bat, etxe bat, egon beharko lukeela indarkeria arazoengatik etxea utzi behar duen emakumea jasotzeko. Eta arreta psikologikoa eta emakumea ondo egongo dela ziurtatuko duen bulego bat ere egon beharko lukeela uste dugu.

Eskualdeko beste herrietan badi-tuzte zerbitzu horiek?

Guk Arrasateko egoera ezagutzen dugu, baina gure asmoa da proiektua eskualde osora zabaltzea Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez. Zerbitzuaren kudeaketa Mankomunitateak eramatea gura genuke eta eskualdeko emakume guztiak izatea eskura zerbitzu hori. Herritarrok baditugu gure eginbeharrak, baina baita instituzioek ere, eta uste dut diru bat bideratu beharko lukeela arazo hori konpontzeko behar diren zerbitzuak jartzeko.

Nola har dakiogez aurre arazo horri? Zein da prebentzio modua?

Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunek dakartzate tratu txarrak. Horri gehitzen zaio gero arazoak indarkeriarik gabe konpontzen ez dakien pertsona, bere hutsegite pertsonalak nola bideratu ez dakiena, eta antzerakoak. Beraz, uste dut oso garrantzitsua dela seme-alabak beste balio batzuetan hezte. Gura izaten dugu gure seme-alabek hiruzpalau hizkuntza jakitea, ordenagailuekin ondo moldatzen jakitea eta oso azkarrak izatea. Aldiz, garrantzi txikiagoa ematen diogu ume horiek gainerako pertsonekin harremanak izateko duten moduari edo arazoak hitz eginez konpontzeari, besteak beste. Emakumeak gizonarekiko duen mendekotasunak urte asko ditu, aspaldikoa da, eta horrek pisu handia du.

Hala ere, gazteek ere hiltzen dituzte emakumeak edo tratu txarrak eman.

Eskemak errepikatu egiten dira. Gizon batzuek uste dute emakume horiek eurenak direla eta nahi dutena egin dezaketela haiekin.

Nola hezi behar dira umeak?

Guztiok hezi behar ditugu, ez soilik ikastetxeek edo gurasoek, gizarte osoak hezi behar ditu. Izan ere, arazo hori ez da emakumeena; emakumeek sufritzen dute, baina arazoa ez da haiena, gizartearena baizik. Horrenbestez, guztiok hartu behar dugu parte arazo hori konpontzeko.

Berdintasunaren alde egin behar dugu lan guztiok, herritarrok, instituzioek zein gizarte eragileek.

Gutunak

Bergaran, pediatria zerbitzurik ez

Osasun zerbitzuan sumatu dudana huts bat dela eta nire protesta eta haserrea plazaratu nahi ditut. Kontua da joan zen zapatuan Bergarako anbulatorkiara eroan nuela 6 urteko semea. Ondozik zegoela eta osasun zerbitzura joan ginen biok. 13:05ean heldu ginen eta ordu horretan pediatarik ez zegoenez, eta larrialdietan 14:00etatik aurrera egongo zenez pediatria, Arrasateko larrialdietara joan beharra neukala adierazi zidaten. Osakidetzaren funtzionamendu kontuak direla eta, prozedura hori zela esan zidaten Bergarako anbulatorioan.

Horren aurrean, protesta egin nahi dut: zapatuetan 13:00etatik 14:00etara bitartean pediatria zerbitzurik ezin da eskaini Bergaran? Ordubetik mediku pediatarik ez dagoelako Arrastera joan beharra daukagu bergararrok? Gero, Arrasaten errieta egiten digute Bergarako larrialdietara joan ordez Arrasatera joaten garelako. Ez zait ez bidezkoa ez eta egokia iruditzen. Zerbitzu hobe merezi dugula uste dut.

ELVIRA OTAÑO
Bergara

Normalizazioa eta bakegintza... Eta bitartean herria zer?

Normalizazioa eta bakegintza hartu zuten kurtso politiko berri honetan helburu bezala EAEko gobernuaren diren alderdiek, Ibarretxe bera buru zutelarik. Berriz, hitz hutsetan eta buru garbitze propagandistikoaren zakuan galduko dira helburuak.

2003ko udal hauteskundeak aspaldi pasa ziren. Zoritxarrez, orduan gauzatuak diskriminazio politiko eta ideologikoak bere horretan dirau, eta mila gara Euskal Herri osoan horren ondorioak pairatzen ditugun herritarrek.

Pasa den udan, Batasunaren Mahai Nazionalak, kurtso politiko berriaren aitzinean geundelarik, alderdien arteko distentsioa eta konponbiderako borondatea eta asmo onen giroan geundela zirudienean, gutun bana bidali zien bere garaian alderdien legearen aurka azaldu ziren alderdi politikoei. Gutun honetan, Batasunak herrietan ematen den apartheid politikoa gainditzeko egin beharreko urratsak ematera enplazatzaren zuten aipaturiko alderdiak. Baina denok dakigun bezala, inork ez zuen inolako urratsik eman ezta inolako konpromisorik hartu ere egoera baztertzailer honi aurre egiteko. Aitzakia eta zuri-keria ezberdinak entzun genituen alderdi buruen aldetik: "Ez dagoela zereginik; 2007ra arte itxaron behar dela, PP eta PSOEri zergatik ez zaien enplazamendua egin..." Aitzakiak, finean herrietako apartheid egoera gainditzeko borondate politikorik ez dutela esateko!

HERRI ANITZA herritar plataformak, ordea, herrian bertan egin nahi izan du enplazamendua eta Udaletxea gobernatzen duen enpresa gizonarekin egon

ginen; Ignacio Lacunza, alkatearekin alegia. Beronekin izandako elkarrizketa oso motza baina oso esanguratsua izan zen guretzat. Bere denbora baliotsutik bi minutu eskaini zizkigun, Herri Anitza-ko ordezkariak alkatezatik bota aurretik. Enplazamendua egin ostean, oso urduri jarri zen, antza ez baitzuen gaia oso gustuko, eta bere alderdiaren postura argi eta garbi zein den esan zigun: "Zuen proposamena bideraezina da... Azkoitian beraiek jakingo dute zertan dabiliz... Zuek badakizue zergatik ezin izan zineten aurkeztu... Ez daukat inolako proposamenik ez borondaterik arrasatearren hitza errespetatua izan dadin, hau bukatu da eta agur!". Altxatu eta alkatezako atea ireki zigun. Bi minutu! Hori da hori taila politikoa eskasa! Gauza bera beste modu batez esan ahal izango zenigun, ezta? Gure aldetik, eskerrak eman behar dizkizugu, Ignacio. Eskerrak, zurikeriatan ez ibiltzeagatik eta zuk eta zuk ordezkatzaren duzun alderdiak (zeren dagoeneko aklaratu baitzara eta ez zara independentea, bejondeizula!) herri honi eskaintzeko daukana argi eta garbi esateagatik. Milaka arrasatearren borondatea ukatzearen kontura ari zara karrera politikoa egiten. Prentsan ere ikusi zaitugu goi mailako politika kontuetan zure protagonismo momentuaz baliatzen. Puztu eta puztu, altu apuntatzen duen globoa bezalaxe zoaz diputaziora edo nork dakien zerurantz. Baina gogoan izango dugu arrasatearrok nor zaren eta nola abiatu duzun zure hegaldia. Airean besterik ez zara, eta kontuan izan EHko politikagintzan haizeak sarri aldatzen duela bere norabidea.

Urteetan zehar, Ezker Abertzalea herri honetan ondo sustraituriko alderdia den konbentzimendu osoa daukagu. Udaletxea beste era herritarragotan kudeatzen jakin izan dugulako, eta herriaren babesa izan dugulako. Ziuratasun osoa daukagu hurrengo udal hauteskundeen ostean udaletxean egongo garela berriz. Lotsagabekeria eta arduragabekeria itzela iruditzen zaigu gure existentzia bera errefusatzeko egun udalean dauden alderdien partetik. Ez al dakizue Ezker Abertzalea Euskal Herri osoan, eta osoan diogunean zazpi lurraldeez mintzo gara, herri bakoitzeko zinegotzi gehien izan dituen alderdia dela?

Ezin zaio errealtateari bizkarra eman. Zertaz mintzo zarete normalizazio politikoz mintzo zaretenean? Ezker Abertzalea mapa politikotik ezabatu eta zuen handikeriak lasai asko burutzeaz? Eta bakegintzaz mintzo zaretenean?

Udaletxea, herria eta Euskal Herria bera ere beste modu batean eraiki daitetekeela uste dugulako, eta urteak aurrera joan ahala, duela 25 urte asmatu genuen bezala, orain ere asmatzen ari garela uste dugulako, Euskal Herriak merezi duelako, apartheid egoera hau gainditu arte ez dugu etsiko. Udaletxe honek herritar guztien pentsaera behar duelako. Guztiena.

Gora begira gaude ea esfera altuetan mugitzen diren politikoei herri honetako gatazka konpontzen duten. Eta gero herrietan bertan, argi eta garbi ikusten dugu ez dagoela inongo borondaterik elkarrizketarako, elkarlanerako eta konponbidearen norabidean urratsak emateko. Guk beti pentsatu izan dugu herrietatik abiatuz eraikitzen dela

nazioa. Horregatik normalizazio politikoaren giltza herrietan dagoela uste dugu. Dena da borondate kontua.

HERRI ANITZA HERRITAR PLATAFORMA
Arrasate

Ni ere bai

Aurreko baten presoen senideek dei publikoa egin ziguten arrasatear guztioi, ordu erdiko eta metro erdiko elkartasuna eskatuz.

Ni ere amorratzen nau asko hedatzen ari den mezu eta jarrera batek, "lehenengo ni, gero ni eta azkena ere ni", eta horren aurrean guztioi ere zerbait gehiago egin dezakegula uste dut (dela etxean banderola zintzilikatuz, dela kale agerraldietan azalduz, dela bisiten eta gutun bidez...).

Horregatik, orain arte ez nuenez, Euskal Presoak Euskal Herrira aldarrikatzen duen banderola zintzilikatu du dut etxean.

Ez da asko eskatzen eta nik ere arrasatear guztiak gonbidatu gura ditut beste pauso bat ematera, eta hasteko, gaur hileko azken ostirala izanik, zer hobeto Herriko Plazan ordu erditxo batez azaltzea baino, gure presoei eta senideei elkartasuna adierazteko.

JOSEBA EZPELETA
Arrasate

Oñatiko gazteekiko elkartasuna

Telebista aurrean, erdi lo badaude nagiak direlako, pasiboak; eta autoantolaketaren bitartez gaztetxea sortu, txukundu eta lan-dinamika bat mantentzea lortu dutenean, kontrolez kanpo dabilzalarako, zer egin? Ez dute erraza Oñatiko gazteek.

Autonomia ala kontrola, hori da kontua; gazteek era autonomoan jokatzeko, erabakiak adosteko, helburuak partekatze eta elkarlanerako gai direla demostratu digute. Alkateak, berriz, indarraren hizkuntzaren bitartez mintzatzen dela. Autonomiaz eta arduraz jokatu dute gazteek, harrokeriaz alkateak. Talde-ekimena, sormena eta inplikazio pertsonala izan dira gazteen tresnak, bere botere instituzionala alkatearena. Beren eskuetatik irten da gazteen lana, eskabadoraren beso hotzetik alkatearena. Hitza izan da gazteen defentsa; itxurakeria eta Ertzaintzaren gomazko pilotak alkatearena.

Horregatik, alkateak herritarren haserrea eta salaketa lortu du eta gazteek herritarren konprentzioa eta babesa.

Inongo errespeturik gabe, gaztetxea bota, gazteen ilusioak zapuztu eta kalte ekonomiko eta psikologikoa egin die alkateak; bada gazteei barkamena eskatzeko garaia. Haiek euren burua gobernatzeko eskubidea dute, zer nola eta norekin egon nahi duten erabakitze eta alkatea ez da inor hori ukatzeko, herritar guztien zergak jasotzen baditu denen ordezkari izaten ahalegindu

beharko litzateke, Oñati ez baita bere finka partikularra. Gazteekin jarri eta gauzak konpontzeko garaia da. Gazteek arduraz jokatzeko badakitela demostratu digute; orain alkatearen txanda da.

ZUTIK
Debagoiena

Bizi osoko kartzela zigorra arrasatear bati

Unai Parot euskal preso arrasatearra-ri bizi arteko zigorra jarri nahi diote. Fernando Grande-Marlaska Audientzia Nazionalako juezaren aurrean deklaratu zuen Unai joan zen ostiralean, juridikoki estalita erabili duten maniobra politiko baten bidez zabaldu dioten prozedura berri bat dela medio.

Joan zen ostiralekoa zazpi hilabetetan Audientziak bere aurka zabaldu duen bigarren prozedura da. Unai ondo berotuta eraman zuten juezaren aurrean deklaratzera, espainiar polizia batek bultzatu eta jipoitu baitzuen espetxetik Audientziarako bidean. Espainolen esanetan, Unai harremanak mantendu ditu etengabe ETA erakunde armatuko zuzendaritzarekin, bere ustez objektibo militarrek zein diren azalduz. Unai salaketa guztiok ukatu zituen epaiketan. Baina Ainhoa Mujika eta Juan Antonio Olarrari atxilotzerakoan atzemandako gutun bat omen da hori probatzen duena eta kitto! Martxan dago, berriz ere, euskal preso politiko baten aurkako maniobra politikoa. Aurretik Enrike Letona eta Iñaki de Juana euskal preso politikoa aplikatu zieten joko zikin berdina, eta estrategia honekin bat egiten duten zenbait komunikabideetan irakurri ahal izan dugunez, beste hainbat euskal preso politikori ere berdina egin nahian dabilta.

Apirilean Espainiako Entzutegiko Lehen Epaitegiak Zigor Kode berria aplikatu nahi izan zion Paroti (hala espetxean urte gehiago betearazteko), baina hau ezinezkoa zenez bestelako neurriak hartu zituzten helburu mendekatzailer hau lortzeko: erredentzioak kendu eta jarritako 26 zigorrak epe batean betetzen utzi ordez, zigorrak bi ataletan bereizi nahi dizkio Audientzia Nazionalak. 1982 arteko sententziak zigor batean bildu ditu, eta horren arabera, Unai Parotek 2011n beteko luke 30 urteko lehen zigorraldi hau eta egun horretan hasiko litzateke bigarren zigorra betetzen... 2041. urtera arte luzatuko litzatekeena. Honen arabera, 60 urteko espetxe zigorra, bizi osoko kartzela zigorra jarriko liokete bizkar gainean.

Eta berriz ere, gerra estrategia. Berriz ere, Espainiako gobernuak gatazka luzatzea dakarten neurriak hartzen jarraitzen du Frantziar gobernuak lagunduta. Presoak geroz eta gehiago urrunduta sakanaketa politika areagotu, presoak jipoitu, torturatu, gutxieneko bizi baldintzen bortxatzea eta bizi osoko kartzela zigorraren aplikazioa ere bai, mendekuzko politikaren motorrak punttu-puntu mantendu eta presoen itzura politiko zein pertsonala suntsitzeko.

Unairi egin diotena astakeria galanta da. Estatuek euskal preso politikoen aurka darabilten estrategia anker horretan

egiten ari diren apustu errepresibo berriaren beste proba bat: Itxura juridikoaz estalitako maniobra politikoak, legeak aldatuz eta daudenak ez errespetatuz egiten dituztenak.

Bizi osorako kartzela zigorra, konponbiderako ahaleginen aurrean jartzen dutena.

Politika horrek sortzen duen sufrimenduari amaiera emateko hitzari eta elkarrizketari bide eman behar zaio, eta euskaldun guztiok zeresan handia dugu afera honetan. Guztion esku dago euskal gatazkari konponbide politiko, demokratiko eta behin betikoa aurkitzea.

Unai 15 urte daramatza kartzelan. Ez diote bere preso politiko izaera onartzen. Alta, erabaki politiko bat dela medio, 60 urteko espetxe zigorra betearazi nahi diote. Paradoxa esanguratsua eta ankerkeria latza, benetan. Egoeraren grabetasuna, berriz, edonor kezkatzeko modukoa da. Zein izango da hurrengo neurri berria? Eta halakoak gertatzen direnean zergatik geratzen da isilik hainbeste jende?

Ez diezaiegun gure bidea zapaltzen utzi eta egin dezagun aurrera. Adierazi diezaiegun gure elkartasuna Unairi une gogor hauetan.

Animo, Unai, eutsi gogor!!!

ASKATASUNA
Arrasate

Emakumeen kontrako indarkeria, ezberdintasunaren isla

Indarkeria botere gehiegikeria da, eraso eta tratu txarrak ahal duenak ematen ditu. Era askotara gauzatzen da tratu txarra: pertsona helduak umeengan, autonomoak menekotasunen bat dutenengan (ekonomikoa, psikikoa, fisikoa, mugigarritasun funtzionalekoa, ...). Tratu txarra dagoenean nolabaiteko ezberdintasuna dago. Emakumeen kontra beste horrenbeste, gizonak gauzatutako tratu txarra ere ezberdintasunean oinarritzen da: emakumeena gizonetik. Horrek ez du esan nahi gizonak bakoitzak emakume konkretu bakoitzarekiko botere gehiago duenik, baizik eta mentalitate sozialak direla, enplegurako sarbidean eta soldaten ezberdintasuna, etxeko lanen banaketan eta pertsonen zaintzan, erabaki-esparru ekonomiko eta politikotan emakume eta gizonen eragin ezberdina, e.a. Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna ongarrizten dute, emakumeen kaltetan. Nahiz eta gizonen bakoitzak emakume konkretu bakoitzarekiko botere gehiago duen emakumeak egon, baita tratu txarra gauzatzen duten emakumeak ere, emakumeen kontrako indarkeria bere larritasun eta ondo-riengatik garrantzizko arazo soziala da.

Batez ere emakumei eragiten dien arazoa da, baina ez da emakumeen arazoa, baizik eta giza-eskubideen urraketa-arazoa, ezberdintasun, injustizia eta zoriz gaitzarena, mundu-mailan makina bat sufrimendu sortzen dituelako, bai biktimazuzenengan baita haien inguru gertuenean ere. Arazo konplexua da, botere-banaketa ezberdinetik abiatzeaz gain, bestelako osagaiak ere badituelako, besteak beste, frustrazio pertsonalaren aurreko tolerantzia falta bezalako, eskusibotasunean eta posesio-nahian oinarritutako amodiozko harremanen existentzia, gatazkei elkarrizketaren bidez aurre egiteko baliabide pertsonal falta, enpatia, entzutea, kooperazioa eta antzerako baloreen garapen falta.

Kartzelaren eta zigorren gogortze/zurruntzearen bidez konpon ezin litekeen arazoa da. Kartzela balio simboliko garrantzitsua duen zigorra da, are gehiago orain gutxira arte emakumeen gaineko tratu txarra arlo pribatutzat eta tratu txarrak jazotako emakumea susmagarritzat ("zeozer egin izango zuen", esaten zen) hartzen zen herrialde batean. Hala ere, kartzelak ez du zertan emakumeak babesteko modurik onena izan, kartzela gehiagok ez du zertan emakumeen segurtasun handiagoaren sinonimo izan, ezta gizonen indarkeriazko eta gehiegizko jokaera aldatzeko bitartekorik onena ere. Ez du prebentzio-neurri gisa balio, baizik eta guztiz kontrako, Langraitzeko pertsona presoek, hain zuzen, eta Salhaketak behin eta berriro salatu duen bezala, jasandako jazarpen, eraso eta baita beren buruaz beste egiteko indukzioek ere erakusten duten bezala.

Aurreiritzi gabeko eran analizatzea eskatzen duen arazoa da, tratu txar egoerak oso era askotarikoak direlako eta, beraz, neurri berdinek ez dutelako baldintza guztietarako balio; zentzu honetan garrantzitsua da horrelako egoerak bizi dituzten emakumei entzutea, segur aski komeni zaien hobekien dakitenak izango baitira. Bide judizialak kasu askotan emakume hauei protagonismoa eta autonomia ken diezaike, behin prozesua hasita ez baita tratu txarrak jasan dituen emakumea berau kontrolatzen duena.

Beste alde batetik, tratu txarren oinarrian ezberdintasuna badago, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egin dezaten legeak indarrean jartzea beharrezkoa da. Ongietorriak bitez legeak, Eusko Jaurlearitzaren berdintasun legea edo estatuko Gobernuaren lege integrala, baina ez da nahikoa paperean idatzita gelditzearekin; idatzita dagoenaren eta hezur-haragizko emakumeen errealitatearen arteko distantzia handiagoa egoten jarraitzen du, esparru ezberdinetan emakumeek sufritzen duten diskriminazioarekin akabatuzko baliabide ekonomiko eta sozialak handitzea beharrezkoa da.

Prebentzioak ezinbesteko garrantzia du, ez da batere arraroa testuinguru fami-

liar zein harreman afektiboa edo bikoitzkoa bitarte diren besteetan arrisku egoeratzat har litezkeen egoerak erraz ikus-tea, zergatik indarkeria eszenatoki, heriotza barne, bihurtu arte hondatzen itxaron? Oinarritzko errenta, lan-trebakuntza, gatazka kasuetan bitartekaritza, asistentzia psikologikoa, beste neurrien artean, indarkeriazko jokabideen erauzteka ekarri barik berauek leun ditzakete, eta segur aski emakume askoren heriotza saihestuko lukete.

Herrialde baten garapena ezin jarrai liteke Barne Produktu Gordinaren arabera neurtzen, ezta autopista kopuruaren arabera ere, ezta bere garapen teknologikoaren arabera ere, benetan dagoen aukera-berdintasunaren arabera baizik, emakumeek sozialki betetzen duten espazioaren arabera, ekitate- eta kohesio-mailen arabera, elkarbizitzaren eta ongizate emozionalaren kalitatearen arabera baizik. Horregatik, elkartasuna, autonomia pertsonala, genero-estereotipoen presio barik nork bere burua eraikitzeko askatasuna... bezalako baloreen garapena gizonen zein emakumeen zeregina da.

ZUTIK
Debagoiena

Guztion esku dago

HIZKUNTZA GATAZKA GAINDITZEA

Euskal Herrian euskaraz normaltasun osoz bizitzea galarazten diguten legedi eta hizkuntza politiken eskutik mendeetan irauten duen hizkuntza gatazka bizi dugu, euskaldunon hizkuntza eskubideak nabarmen urratu eta euskararen normalizazio osoa lortzea ezinezko bihurtzen duena. Hizkuntza gatazkaren gaindipena Euskal Herriarentzat behar dugun irtenbide politikoaren baitan lehentasunez kokatzea ezinbestekoa da. Euskarak aldaketa oso baten premia du.

GUZTION ESKU DAGO

Alderdien esku. Sindikatuen esku. Eragile sozialen esku. Herriarrok esku. Bakoitzak dagokigun arduratik eta lekutik, baina euskarari lehentasunez hel-du behar diogu. Gutxienekoen azpiko neurrietatik irmotasunez, euskara lehen mailako hizkuntza izan dadin neurriak hartzea. Aukerak eta baldintza berriak sortzeko unean gauden honetan, herriarrok presioa areagotu eta euskalduntze lanean gure parte hartze aktiboa gauzatu behar dugu. Euskarak behar duen aldaketa bultzatzea dezagun, herriarrok errentzat. Guztion esku dago!

Azaroaren 26an MANIFESTAZIOA IRUÑEAN, 17:30ean, Autobusetatik.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

Sorgin ehiza

Hasi da 18/98 sumarioari dagokion ahozko ikustaldia. Bere oinarrian duen tesi bakarra zera da, erabat zilegiak diren jardura politiko eta sozialak, ideologikoki ETArekin zentzudun postuladurekin bat egiten dutenaren argudiopean, erakunde armatuaren konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parekatzea. Tesiaren zentzugabekeria nabarmenak agerian uzten du estrategia politiko jakin baten esanetara hartutako neurriak direla. Ez dago zalantzarik: abiapuntu politiko eta antidemokratikoa duen epaiketa da eta, beraz, ideien kontrako prozedura baten aurrean gaude. Estrategia horren bidez, gure herriko esparru sozial eta politiko zabal bat espainiar legeriatik kanpo utzi nahi da eta Euskal Herriak nazio gisara aurrera egin dezan hainbat esparrutatik egiten den lan antolatua oztopatu. Horretarako, hainbat herritar eta talderen askatasun zibil eta politikoak urratu dira: adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa edota disidentziarako eskubidea.

Talante berriaz eta bake prozesuaren atariaz larregi hitz egiten den momentu politiko honetan, sumario honek atzeragoko denborak ekartzen dizkigu gogora. Are gehiago, makrosumario hau azken hamarkadetan euskal gizartearen aurka egin den bidegabekeria juridikorik handiena da, 59 auziperatu eta mila urteko kartzela eskararekin. Euskal Herriak erreazionatu beharra du, ezin da isilik geratu.

Gainera, Euskal Herriak behar duen bake prozesua abian jartzeko oztopo da eta, neurri horretan, Zapaterok eta Espainiako Gobernuak aukera ezin hobea dute prozesu horrekiko bere konpromisoa eta borondatea erakusteko, Fiskaltza Nagusiari akusazio publikoa bertan behera uzteko instrukzioak emanez.

Astelehenean, Madrilen egon ginenok bi gauza oso argi ikusi ahal izan genituen: batetik, epaileek ez dutela beharrezko garantia juridikorik eskaintzen epaiketa honen emaitzari dagokionez, irregularitasun eta akats guztien gainetik, astelehenean bertan galdeketekin hasteko agindua zutela argi ikusi baitzen. Bestetik, prozesu luze eta neketsua izango dela akusatu eta senideentzat eta, beraz, denon babesa eta elkartasuna behar beharrezkoa dutela, bai herritar guztiona eta bai eragile eta erakundeena ere. Eusko Legebiltzarrean eman dute pauso bat. Herriarrok ere eman dezagun geurea. Lehen hitzordua larunbatean daukagu, hiriburuetan, eguerdiko leian, epaiketa bertan behera uztea eskatzeko eta inputatu eta senitartekoei babesa agertzeko. Larunbata arte.

ARALAR
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ERREDAKTORE BURUA
Leire Kortabarría

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziertra Martin,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta
Itxaso Berebizar

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Eski estazioak mantu zuriaren zain

Oraingo asteburuan hasiko da eski denboraldia, baina estazio gutxik irekiko dituzte ateak

XABIER URTZELAI

Astebururako hotza eta elurra iragarri dute, eta berri hori pozarren hartu dute askok. Denboraldiko lehenengo asteburuan nekez eskiatuko dute, baina gainean dago abenduko zubia. Eski estazioek egin dituzte prestaketa lan guztiak: ateak irekitzea falta da.

Joan zen astean botatuko lehenengo elur malutek lehenengoz zuritu zituzten Euskal Herriko tontor garaienak, eta baita Pirinioetakoak ere. Ez da, baina, nahikoa izan, eta eski estazioetako jabeak zerura begira daude, elur gehiagoren zain. Bada, badi-rudi pozteko arrazoiak dituztela, oraingo egunetarako elurra iragarri dute-eta. Izan ere, asko dago jokoan, denboraldia ondo hastearekin batera asko direlako abenduko zubia eskiatzeko aprobetxatzen dutenak.

BAQUEIRA BERET, BIHAR

Baqueira Beret estazioan esan digute oraingo zapatuan, hilak 26, irekiko dituztela ateak. Atzo goizean (eguna) izan ginen eurekin berbetan: "Orain dela bost minutu hartu dugu zapatuan zabalteko erabakia; informazio freskoa duzu, horrenbestez. Orain eguraldi ederra daukagu, garbi dago zerua, baina astebururako txarra iragarri dute. Badakigu ez dela jende askorik etorriko, errepideak ez direlako egoera onean egongo; baina zapatuan lanean hasita gertu egongo gara abenduko zubirako".

Elurra egonez gero, abenduaren 1ean irekiko dituzte eski estazio gehienek ateak, abenduaren 3an hasiko den zubirako gertu egoteko. Hori uste dute Candanchun ere: "Oso zaila izango da oraingo zapatuan irekitzea. Pistetan badago elur apur bat eta gu ere elur artifiziala egiten gabilta. Zerura begira gaudela, elurra egiten noiz hasiko den zain, eta ez du askorik behar. Atzo (eguztana) hamar gradura geunden, eta gaur zero azpitik sei gradu ditugu; tenperaturak nabarmen egin du behera".



GOIENKARIA

Estatuko estazioetan 73 milioi euro gastatu dituzte aurten; eta estazio batzuetan egindako lanek eztabaida piztu dute.

73 MILIOI EURO INBERTITUTA

Gero eta jende gehiagok eskiatzen du, eta eski estazioak aspaldi konturatu dira horretaz. Gero eta zerbitzu hobekiak eskaini guran, pista gehiago egin, errepideak konpondu, erremonte gehiago jarri... Guztira, Espainiako estazioen kasuan 73 milioi euro pasa-

txo inbertitu dituzte aurten. Hala xe jakinarazi zuen ATUDEM Espainiako Eski Estazioen Elkarte Turistikoa. Eta inbertsio horiek lehenbailehen errekupe-ratu guran, forfaiten prezioek gora egin dute; euro bat eta bi euro artean igo dituzte eski estazio gehienetan. Deigarria izan zen

orain dela urte gutxi Errioxako Gobernuak Valdezcaray estazioan egin zuen gastua, eta aurten-ego inbertsioen artean, Formigalek egin du apustu handiena: 29 milioi euro gastatu dituzte. Hala, Aragoiko estazio handiengan hamar pista berri eta 15 kilometro gehiago izango dituzte eskia-

Mendi taldeen irteerak

Denboraldia hastearekin batera ibarreko mendi elkarteak hasi dira eskiatzera joateko irteerak antolatzen. Horietako irteera asko zeharkako eskia edo iraupen eskia egiteko izango dira. Baina, arrakastatsuenak eski alpetarra egitera joango direnak izango dira. Hala, Aloña, Besaide eta Pol-Pol elkarteak dira irteera gehien antolatzen dituztenak. Oñatiarrek berritu dute hainbat estazioekin zuten hitzarmena, forfaitak merkeago erosteko. Egingo duten lehenengo irteera Baqueira Beretara izango da, urtarrilean. Besaidek urtarriletik apirilera arte astebururo egingo ditu irteerak Formigalera. Eta dagoeneko gertu daude Alpeetara joateko eskaintzak ere.

Valdezcaray, gertu

Errioxako eski estazioan aspaldian ez dute joan den urteko moduko denboraldia izan. Botatuko elurraz egoera ezin hobea izan zen estazioa. Horrekin batera, eskiatzaileek gura beste gozatu ahal izan zuten pistetatik kanpo. Debagoienetik oso gertu (ordu eta erdi autoz) Errioxako estazioak asteburua igartzeko edo egun-pasa egiteko aukera ematen du. Aurten, gainera, 10 kilometro gehiago izango dituzte eskiatzeko, eta 22 pista guztira (18-25 euro). Pista horiekin, baina, ez dute estazioa handitu, lehenengo pistak elkarlotu baizik. Zubirako gura dute estazioa zabaltzeko: "Goiko pistetan badago elurra, eta behean elur artifizialarekin gabilta. Baina asteburuan elurra botako du".

LAN ESKAINTZA

ARKITEKTO TEKNIKO bat eta ERIZAINZAKO DIPLOMADUN bat bitarteko funtzionario izendatu nahi dira aldi baterako.

Probak:

- Arkitekto teknikoa: abenduaren 1ean.
- Erizaintzako diplomaduna: abenduaren 2an.

Oinarriak: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate-mondragon.org



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal salla ■

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIRRITX ETA PORROTX
Maite zaitut
Ikuskizuna

- Noiz: Azaroak 26, larunbata
- Non: Eskoriatzako kiroldegia
- Ordua: Arratsaldeko 5ak
- Sarrera: 5 euro. Salgai hemen:

Eskoriatzan:
Dorleta liburudenda eta kiroldegian
Aretxabaletan:
Loramendi euskara elkarte eta ludotekan
Arrasaten:
Monte Tabernan



AXTR.Obi
KULTUR ELKARTEA

Angela Estetika Zentroaren Zerbitzu berria Arrasateko Iturriotz 35ean

**Argaltzea eta gorputz tratamenduak
Medikamentu eta orratzik gabe**

• Zelulitisa eta "laranja azala" izeneko efektua dira emakume askok izaten dituzten arazo antiestetiko handienak.

Hautzat ere badugu irtenbidea: loditasuna, tinkotzea, tonifikazioa, hanka nekatuak eta denetarik gorputz arazoak.

• Lan egiteko modua oso erraza da. Problematika mota hori lantzeko 5 aparatua ditugu. Astean bi aldiz landu ostean irtenbidea ematen diogu (gehienez 8 saio hileko).

• **Tarifa finkoa: 60 € hileko.**
Hilabete honetan, matrikula doan (40 €).

• Eskatuz gero, zure zerbitzura egongo diren bi dietistaren aholkularitza jasotzeko aukera izango duzu.



estetika zentroa
angela

**Angela Estetika Zentroaren
Zerbitzu berria:
Iturriotz 35 - 607 59 64 29**
Eta betiko lekuan ere bai:
Ferrerias 35 - 943 79 88 23

Hauek izan dira hilabetez erabiltzeko **20 txartelen irabazleak**

- Naiara Urbina Iburguren (Aretx.)
- Lorea Sagasta Valentin (Eskoriatza)
- Itziar Usandizaga Galarraga (Bergara)
- Olaia Zubia Balantzategi (Arrasate)
- Ainhize Girado Balantzategi (Arrasate)
- Ines Barquero Martinez (Arrasate)
- Feli Goya (Arrasate)
- Jone Rodriguez Garitano (Antzuola)
- Jaione Bastardo Zubia (Oñati)
- Maripi Laskurain Iturbe (Bergara)
- Espe Iraskegi Axpe (Arrasate)
- Amparo de la Peña (Arrasate)
- Ane Undagoitia Txurruka (Arrasate)
- Elixabete Barandiaran Artano (Aretx.)
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)
- Isabel Gallastegi (Arrasate)
- Mertxe Martin San Jose (Arrasate)
- M. Tere Basabe Gorrotxategi (Arrasate)
- Ainhoa Zabaleta Igartua (Oñati)
- M. Aranzazu Biain (Oñati)

Txartela (8 saio hileko) jasotzeko, pasa zaitzete azaroaren 28tik abenduaren 2a bitartean (09:00 - 13:00 / 15:00 - 20:00)
**Angela Estetika Zentrotik:
Ferrerias 35, ARRASATE.**



Orain Bergaran.

TOYOTA




EuskoAuto

**Olabarrena z/g
BERGARA
943 76 23 85**

BERGARA

EUSKOAUTO

ELORREGI





Bide-erakuslea aurkitu dut
nire etorkizunerako.

JUANITO OIARZABAL
ALPINISTA

Aurreikuspen / Pentsio Planak **EUSKADIKO KUTXA**

Etorkizunerako aholkularitza eta gainera opari bat.

Aholkulari pertsonal batek, zure beharrak eta egoera aztertu ondoren, plan ugariren artean ondoen datorkizuna aukeratzen lagunduko dizu, bide batez, onura fiskalik handiena lortu dezazun.

Euskadiko Kutxan etorkizuna argi baino argiago ikusten lagunduko dizugu.

Aurreikuspen / Pentsio Plan Klasikoa.
Aurreikuspen / Pentsio Plan Mistoa.
Aurreikuspen / Pentsio Plan Aldakorra.
Aurreikuspen Plan Monetarioa.
Aurreikuspen Plan Dinamikoa.
Garantizado I Aurreikuspen Plana.
Garantizado II Aurreikuspen Plana.

Eta gainera, urte bakoitzeko ekarpen guztiak kontuan hartuta, opari bat ere jaso dezakezu.

Euskadiko Pentsioak BGAE Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatearen Aurreikuspen Planak.



2.500 €
ERREMINTADUN
LINTERNA



2.500 €
ZUKUGAILUA



5.000 €
FRIJIGAILU ELEKTRIKOA



5.000 €
KABLERIK GABEKO
ZULATZEKO MAKINA



8.000 €
MAHAI TRESNAK



15.000 €
14"KO TELEBISTA

Zurekin elkarlanean

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA


Goienka2a

Egubakoitza / 2005eko azaroaren 25a

Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren 25etik
abenduaren 2ra



Argazki handian, Kortabarririk utzitako partitura baten azala, Dionisio Aguadoren; behean, Kortabarriren sinadura. Argazki txikian, eskuizkribuetatik egindako diskoa.

ALTXORRA, PARISTIK OÑATIRA

Oñatiar batek Sor gitarrako maisuaren lanak kopiatu zituen 1830ean; orain, aurkitu eta diskoa egin dute

Musika aurkikuntza handia egin dute Oñatin: Kortabarrira Eskuizkribuak, gitarrarako 400 bat lan, denetarikoak; horietatik garrantzitsuenak, Blas Andres Kortabarrira oñatiarrak 1830. urte inguruan kopiatutako lan batzuk, Fernando Sor gitarra-jolearenak, *gitarrako Beethoven ezizenaz ere ezaguna*. Sorren lan haietako gehienak argitaragabeak ziren, ez zeuden inongo katalogotan. Eta horietako 25ekin diskoa egin dute.



Cortabarrira Eskuizkribuak - Fernando Sor: *Obras Desconocidas* du izenburua diskoak, eta Eduardo Baranzano gitarristak jotzen du.

Horren aurreko istorioa bitxia da, eta oñatiar batzuen lana dago tartean: bate-tik, Lupe Azpiazurena, Jose Azpiazu zena-ren alabarena, hark zituen-eta partitura horiek; bestetik, Xabier Ugarterena, lanak hari eman zizkiolako Azpiazuk, horiekin zer egin antola zezan. /15 /LEIRE KORTABARRIA



ABENDUKO ZUBIAN

EHES EGIN

ZUZENKO HEGALDIAK

Irteerak **BILBOTIK****BALEARAK eta KANARIAK****333€**
-tik aurrera

| MALLORCA 5 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|---------------------------------|----|--------------|
| APARSUIT APTU. 3LL OCC. 3 PERS. | OB | 333 |
| LANCASTER H. *** | ME | 346 |
| SOL ANTILLAS/BARBADOS H. **** | ME | 350 |

| TENERIFE 5, 6 eta 8 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|---------------------------------------|----|--------------|
| PARK PLAZA APTU. 2LL | ME | 427 |
| PANORAMICA GARDEN APTU. *** | ME | 445 |
| CATALONIA PUNTA DEL REY H. **** | GB | 494 |
| FIESTA OASIS PARAÍSO H. *** | ME | 445 |
| AGUAMARINA GOLF H. **** | ME | 504 |

| LANZAROTE 5 eta 6 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|-------------------------------------|----|--------------|
| LOS NARANJOS APTU. 2LL OCC. 4 PERS. | OB | 468 |
| BEATRIZ PLAYA H. **** | HG | 585 |
| LANCELOT H. *** | HG | 587 |

| KANARIA HANDIA 5 eta 8 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|--|----|--------------|
| ATLANTA H. *** | HG | 443 |
| TRYP IBERIA H. **** | HG | 572 |

| FUERTEVENTURA 5 eta 6 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|---|----|--------------|
| LA PIRAMIDE APTU. 2LL OCC. 3 PERS. | OB | 489 |
| BRISAMAR APTU. 3LL OCC. 3 PERS. | OB | 516 |

EUROPA eta AFRIKA IPARRALDEA**395€**
-tik aurrera

| MALTA 5, 6 eta 7 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|-------------------------------------|----|--------------|
| ALEXANDRE PALACE H. *** | HG | 420 |
| HOWARD JOHNSON MEDITERRANEA H. **** | HG | 436 |

| PRAGA 5 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|---------------------------|----|--------------|
| OLIMPIK TRISTAR H. *** | HG | 440 |
| OLIMPIK I H. **** | HG | 451 |

| PARIS 4 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|---------------------------|----|--------------|
| HIBISCUS H. ** | HG | 475 |
| OPERA LAFAYETTE H. *** | HG | 495 |

| LONDRES 5 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|-------------------------------|----|--------------|
| WEDGEWOOD H. TUR. SUP. | HG | 514 |
| HOLIDAY VILLA H. PRIMERA STD. | HG | 553 |

| ERROMA 5 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|----------------------------|----|--------------|
| ABC PYRAMID H. ** | HG | 590 |
| MILLENIUM H. **** | HG | 625 |

| DUBROVNIK 5 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|-------------------------------|----|--------------|
| PARK GRAND H. ***S | HG | 755 |
| LERO H. *** | HG | 756 |

| TUNISIA 5, 6 eta 8 eguneko programak | | -TIK AURRERA |
|--------------------------------------|----|--------------|
| HAMMAMET AZUR PLAZA H. **** | ME | 395 |
| MELIÁ EL MOURADI HAMMAMET H. **** | HG | 440 |

ETA ASKOZ ERE AUKERA GEHIAGO...**ESKI ESKAINTZA
BEREZIAK DITUGU,
ZATOZI!**FRANTZIAKO ALPEAK
FRANTZIAKO PIRINIOAK
KATALUNIAKO PIRINIOAK
ARAGOIKO PIRINIOAK
ANDORRA
SIERRA NEVADA

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

MEDITERRANEOAN ZEHAR ITSAS BIDAIA: GRAND VOYAGER

7 egun / 6 gau mantenu osoan

**Ibilbide:**Valentzia, Villefranche (Monako), Livorno (Florentzia),
Civitavecchia (Erroma), Napoli, Tunisia, Valentzia.Irteera berezia
abenduren 5ean,
Iberia Bidaiak agentzian
bakarrik salgai.BARRUKO KABINA **359€**KANPOKO KABINA **565€**3. eta 4.
PERTSONAK
DOANUMEAK
DOAN**VIAJES IBERIA**

GRUPO IBEROSTAR

ETA ESKAINTZA GEHIAGO:
www.viajesiberia.com
EGIN ERRESERBA!**902 108 108**Irteerak Bilbotik; Fuerteventura eta Karibera Madridtik. Itas bidaiak Valentziatik. Itas bidaiak Valentziatik. Prezioak pertsonako logela bikoitzean, abenduko irteera konkretuz bakarrik. Zuzeneko hegaldiak; programako gehienak. Informa zaitiez irteera egunetz eta prezioez. Grand Voyager itas bidaiak, galdetu baldintzak 3. eta 4. pertsonen dagokienez eta umeak doan izateari dagokienez. Karburantzearen igoera, tasak, eskupekoak eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimen: OB: Ostata Bakkarrik; HG: Hotela eta gosaria; ME: Mantenu erdia, GB: Guztia barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**

MUSIKA/ KORTABARRIA ESKUIZKRIBUEN DISKOA

Gitarra arloko aurkikunde handia

BI DEBAGOIENDARREK 1830EAN GOI MAILAKO GITARRA PIEZA BATZUK KOPIATU ZITUZTEN, ORAIN ARTE ARGITARAGABEAK

LEIRE KORTABARRIA

Blas Andres Kortabarría gitarra-jolea Oñatitik Parisera joan zen ikastera. 1830. urtea gitarraren Urrezko Aro bat izan zen, eta urte hartan, Kortabarría eskuz kopiatu zituen Fernando Sorren partitura batzuk. Horiek isilpean egon dira gerotik... orain arte.

Gitarra-joleendako, oso urte garrantzitsua da 1830. Urte horretan, Parisen zeuden munduko gitarra-konposatzaile eta jole bikainenak, Fernando Sor eta Dionisio Aguado espainiarrak, adibidez. Eta 1830. urtean ere, bi oñatiar Parisen zeuden ikasten: Blas Andres Kortabarría eta Eulalio Ipentza. Biek, batez ere Kortabarría, eskuz transkribatu zituzten gitarrarako lan asko, eta partiturak erosi ere egin zituzten. Lan horiek guztiak ez dira argitarara atera orain arte. Aurkikuntza garrantzitsua da, izan ere, koaderno batek, Kortabarría Eskuizkribuak delakoak, Fernando Sorren lan argitaragabe batzuk biltzen ditu. Sor gitarrako Beethoven kontsideratzen dela kontuan hartu behar da.

Sorren lan aurkitu berri batzuekin, Xabier Ugarte oñatiarraren ekimenez, disko bat grabatu dute Ausart etxearekin, gitarra-jole nagusia Eduardo Baranzano dela. Lan hori Durangoko azokan izango da. Guztira, 25 pieza dira: minuetak, valsak...

Berezitasun batzuk baditu diskoak: hala, garai hartan, bestelako gitarra mota bat jotzen zuten, gitarra erromantikoa delakoa,



LEIRE KORTABARRIA

Kortabarría Eskuizkribuak eta aurkitutako beste lanak.

eta 1850. urtean egindako tresna bat erabili dute pieza batzuetan. Bestetik, gitarra "azazkal gabe" jotzearen aldekoa zen Fernando Sor, eta Eduardo Baranzano ere hala jo ditu.

FRANTZIA, SUITZA ETA OÑATI

XIX. mendeko oñatiar haiek eta gaur egungoak lotzen dituen istorioa bitxia da. Blas Andres Kortabarría 1810. urtean jaio zela dakite, eta gurasoak eta anai-arrebak zeintzuk ziren, baina bes-

terik ez. Parisen erositako eta transkribatutako lanak berriro Oñatiko familiaren eskuetara itzuli ziren. 40ko hamarkada bukaeran, Suitzara, Jose Azpiazu musikari oñatiar ospetsuaren eskuetara, pasa ziren, Kortabarríarrek berari emanda. Orain gutxi, haren alaba Lupek aurkitu ditu eta Xabier Ugarteri eman dizkio, haiekin lan egin dezan eta, batez ere, lanak Oñatira itzul zitezen; izan ere, aurrerantzean Oñatiko Udalaren eskuetan gera-

tuko dira, eta diskoa bera Udalak aurkeztuko du ere abenduan.

Sorren lanez gain, Aguadok, beste gitarra-jole handi batek, idatzitako lanak daude; horrez gain, partitura batzuk berak begiratuta bezala agertzen dira; horregatik, uste da bi oñatiarrek Aguadorekin ikasi zutela. Azkenik, liburuxka zaharrago bat ere bada, pieza bitxi askorekin: San Ignazioren ereserkia gitarrarako; 16 zortziko... Ugartek uste du XVIII. mende bukaerakoa dela.



EDUARDO BARANZANO

Eduardo Baranzanok diskoko hainbat pieza jotzen ditu.

"ORAIN 180 URTEKO LANKIDEA DA"

Ondare osoa balio handikoa da. Honela dio Eduardo Baranzanok: "Fondo hau oso garrantzitsua izango da gitarra-ikertzaileendako. Musikologo batendako, dokumentuak altxorra dira dagoeneko: apunteak, musiken bariazio motak, apainketak..."

Giza ikuspuntutik ere baloratzen dute ondarea. Hala, Xabier Ugartek dioen moduan, "1830 urte berezia izan zen gitarrarako, Parisen bildu zirelako gitarra-jole ospetsuenak, eta hor bi oñatiar agertzea gauza harrigarria da". Baranzanok gaineratzen du: "Orain 180 urte bizi izan zen lankide baten berri jaso dugu; gitarrari denbora asko eskaini zion dena zailagoa zen garai baten. Parisen bizi izanak pentsarazten dizkit Oñatitik haraino bidaia bakar batek hartuko zizkion egunetan, bakar-bakarrik, bere gitarrarekin eta bere partiturekin". Musikari ezezagun hartaz datu askorik ez daukagun arren, Xabier Ugarteren iritziz, "partiturak ikusita, nahiko ondo joko zuten gitarra; pieza zailak daude".

AZPIAZU ZENAREN ASMOA

Ugartek eta Baranzanok bildumarekin lanean jarraitzeko asmoa dute: aukera bat da disko gehiago egitea.

Hala ere, gauzarik garrantzitsuena da ondare horrek argia ikusi izana. Horrela, Jose Azpiazu zenaren ametsa ere bete egin da; izan ere, partiturak berak eduki zituen denboran, hura ere saiatu zen argitaratzen, arrakastarik gabe. Azkenean, helburu hori bete egin da.

Musikari izateko, kanpora joan behar

Blas Andres Kortabarría eta Eulalio Ipentzak bezala, beste hainbat debagoiendarrek utzi zuten herria kanpora joateko eta euren dohaina hobeto lantzeko, hori ezohikoa eta gaur egun baino zailagoa zen garai baten.

Hala, Jose Maria Gonzalez Bastida bergararra (1908an jaioa) flauta-jole ospetsua izan zen, eta Euskal Herri osoan jo zuen. Donostian bizi izan zen eta Easo Abesbatzako zuzendari izan zen han. Beste bergarar batek, Remigio Mujikak (1866), Iruñera bidea hartu zuen; tenore bikaina zen, eta



EIBARKO UDAL AGIRITEGIA

Albina Madinabeitia arrasatearra.

Iruñeko orfeoiko zuzendari izan zen 54 urtean.

Arrasaten, Albina Madinabeitia (1909) biolin-jolearen kasua dugu: Madrilen ikasi zuen eta lan garrantzitsuak egin zituen han. Beste arrasatear bat, Julian Sagasta (1914), Erromako Santa Maria la Maggiore basilikako organo-jole izan zen urte askoan.

Oñatin, Aita Madina (1907) eta Jose Azpiazu (1912) ditugu. Aita Madinak Argentinan eta AEBetan idatzi zituen bere lan garrantzitsuenak, eta Azpiazu Suitzan izan zen konposatzaile eta irakasle.

Aita Madinaren onena

Kortabarría Eskuizkribuena ez da egunotan Oñatin sortu den musika ekimen bakarra: Aita Madina oñatiarraren lan onenatariko batzuekin, CD bikoitza egin du Euskadiko Orkestra Sinfonikoak.

Xabier Ugarte ibili da lantalde honetan ere, eta, bere esanetan, "lehen mailako" diskoa da, eta dena da bikaina: lanen euren kalitatea, diskoetxea eta emango dion nazioarteko oihartzuna, interpreteak -Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Donostiako Orfeoia, Romero gitarra-joleak, Xavier de Maestre arpa-jolea...



CLAVES

Disko bikoitzaren azala.

Diskoa erosteko aukera dago Oñatiko turismo bulegoan eta kultura etxean, 25 eurotan.

Aza. 25-Abe. 2

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

IKASTAROAK

ANTZUOLA

► **Ardoaren gaineko Internet ikastaroa** emango dute eguenean, abenduak 1, KZgunean, 10:00-12:00.

ARAMAIO

► **Asteburu bat Euskal Herrian** delako Internet ikastaroa emango dute astelehenean, hilak 28, KZgunean, 11:00-13:00 orduetean.

ARETXABALETA

► **Honako Internet ikastaroak** emango dituzte KZgunean: gaur, egubakoitza, KZguneko foroak, 18:00-20:00; eta hilaren 29an eta 30ean, finantzen gainekoa, 18:00-20:00.
► **Helduendako euskal dantza ikastaroa** ematen dute Musika Eskolan. Egubakoitzetan, 15:45-16:45 orduetean, dira eskolak.

BERGARA

► **Bilatu eta aurkitu: nola bilatu Interneten?** delako ikastaroa emango du Miramon Enpresa Digitalak eguenean, abenduak 1, Miguel Altuna ikastetxean, 18:00etan. Enpresarako informazioa bilatzearen gaineko ikastaroa da. Informazioa, honako helbidean: www.enpresadigitala.net/miramon/eus-kerak/curso_descripcion.jsp?id=2.

ESKORIATZA

► **Egunkaria Internetez irakurtzearen** gaineko ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 10:30-11:30.

OÑATI

► **E-finantzen gaineko ikastaroa** emango dute KZgunean. Astelehenean, hilak 28, lehen zatia emango dute, eta martitzenean, 29, bigarrena, 18:30-20:30 orduetean. Hilaren 30ean, eguaztena, e-posta erabiltzearen gainekoa emango dute, hori ere 18:30-20:30. Azkenik, eguenean, abenduak 1, foroan eta FAQen gaineko ikastaroa izango da, 18:30-19:30.
► **Langileendako ikastaroak** izango dira Zuazola-Larraña institutuan urtariletik aurrera. Izena emateko, deitu 943 78 21 50 telefonora.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **Gaztaina erre jana** izango da etzi, domeka, herriko plazan, 19:00etan.

BERGARA

► **Nagusien Asteko** ospakizunak bukatzeko, Moises Azpiazu dantza taldearen saioa izango dute gaur, egubakoitza, Mizpirualden, 17:30ean.

OÑATI

► **Nagusien Astea** ospatzen ari dira San Martin egoitzan. Gaur, egubakoitza, txokolatearen historiaren gaineko hitzaldia egingo du Anton Aspiazuk 17:30ean.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA

► **Txistua eta dantza gure kulturaren** delako erakusketa dago Ibarraundi museoan abenduaren 4a arte, honako orduetean: astegunetan, 09:30-13:00 eta 16:00-19:00; zapatu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Como Agua para Chocolate** delako antzezlanaren egingo du Ados Teatro taldeak etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai daude Kutxaren kutxazain sarean, www.kutxa.net helbidean edo 943 00 12 00 telefono zenbakian.

ESKORIATZA

► **Maite zaitut** delako ikuskizuna estreinatuko dute Pirritx eta Porrotx pailazoek bihar, zapatua, kiroldegian, 17:00etan. Sarrera 5 euro da, eta Dorleta liburu-dendan, kiroldegian, Aretxabaleta-ko Loramendi elkartearen eta ludotekan, eta Arrasateko Monte tabernan eros daiteke.

IKUSKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Hego eta Ertamerikan bizikletaz** egindako bidaiaren gaineko emanaldia egingo du Eibarko Txotxe-k eguenean, abenduak 1, udaletxe zaharretan, 19:00etan, Loramendiren eskutik.

ELGETA

► **Del tam-tam al tom tom** delako musika ikuskizuna egingo du Pirineos Jazz Orquesta taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean, Elgetako Udalak eta Kutxak antolatuta.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Santa Zeziliako kontzertua** egingo dute bihar, zapatua, Garuak, Gorka Hermosa soinu-jolearen taldeak, eta herriko abesbatzak. Antiguako basilizan izango da, 18:30ean.

► **Luis Anduagaren** omenez, meza

kantatua izango da etzi, domeka, elizan, 11:30ean.

ARRASATE

► **3.60 aretoak** honako kontzertuak antolatu ditu: gaur, egubakoitza, The Business eta Golpe de Estado taldeak, 23:00etan; eta zapatuan, 03:00etan, Balza (kogollo crew) disko jartzailearen emanaldia.

BERGARA

► **Tunel 483 (Ondarroa)** taldeak kontzertu akustikoa egingo du gaur, egubakoitza, Ziripot tabernan. Segidan, DJ KRC (Samu) disko jartzaileak emanaldia egingo du.

► **Nra (Amsterdam) eta Rotten**

Teenagers (Bergara) taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **The Toasters eta Westbound Train** taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Sarrerak, 14 euro, 17 han erosita.

► **Valtierrako Udal Musika Bandak** kontzertua egingo du etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean. Sarrera 2 euro kostatuko da.

OÑATI

► **Bandabardó** talde italiarrak kontzertua egingo du bihar, zapatua, gazte lekuan, 23:00etan.

DEIAK

ARETXABALETA

► **Mendi Astearen** barne, honako ekintzak antolatu ditu Murruxikok: mendi irteera etzi, domeka; eta *Gure Himalaya* (hilak 28), *Laos bizikletan* (hilak 29) eta *Mendi eskia Txilen* (hilak 30) ikuskizunak Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.

ARRASATE

► **Emakumeen aurkako indarkeria-aren eguna dela eta**, salatzeo kale-bilkura deitu dute ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek gaur, egubakoitza, herriko plazan, 20:00etan; bihar, zapatua, biolentzia hori prebenitzeko tailerra egingo dute gazteekin Emakume Txokoan, 10:00-14:00, Udalak deituta.
► **Zahar Berrik** bertso afaria antolatu du gaur, egubakoitza, AEDko tabernan,



► KONTZERTUA

BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTURAKO SARRERAK EROS DAITEZKE

Benito Lertxundi kantautoreak kontzertua egingo du datorren egubakoitzean, abenduak 2, Eskoriatzako kiroldegian, 22:30ean. Emanaldira joateko sarrerak alde aurreko salmentan ipini dituzte honako lekuetan: Eskoriatzan, Dorleta paper-dendan, Mirentxu tabernan eta kiroldegian; Aretxabaletan, Arlutz tabernan; Arrasaten, Monte tabernan; Bergaran, Bilintx liburu-dendan; eta Oñatin, turismo bulegoan. 12 euro kostatzen dira; txarteldegian bertan erosita, 15 euro kostatuko dira. Orioko musikariak 40 urtez ikasten egonak, zuzenean grabatutako diskoa, aurkeztuko du. Orain lau urte ere jo zuen Lertxundik Eskoriatzan, eta oso kontzertu hunkigarria izan zen hura.

Non: sarrerak, ibarreko bost herritan; kontzertua, Eskoriatzan. **Noiz:** egubakoitzean, abenduak 2, 22:30ean.

Abenduaren 17an
Santa Luzia eguneko

menu berezia!

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

Zinema

20:00etan, Jokin Labaien eta Enaitz Alustitzarekin. AEDn eman behar da izena. 5 euro da.

► **Palestindar-israeldar delegazio bat** etorriko da Debagoienara astelehenan, hilak 28. Alternative Information Center erakundetik datoz, hango gatazkaren konponbide baketsuaren alde. Hitzaldia egingo dute San Viator Txikin, 19:00etan.
► **Soberanía y subordinación** liburua aurkeztuko dute Tomas Urzainkik eta Nabarralde Elkarte Anjel Rekaldek martitzenean, azaroak 29, Monterronen, 19:00etan.

BERGARA

► **EHNA** tramitatuko dute bihar, zapatua, Irizar jauregian, 11:30-13:30.
► **Txirridulari Elkarteak** urteko batzara egingo du bihar, zapatua, Zuloa elkartearen, 20:00etan; gero, Zumelagan afalduko dute. Izena emateko, joan lgartua bizikleta-dendara.

DEBAGOIENA

► **Larrabasterrara, Ikasle Egunera**, joateko autobusak antolatuko dute. Iratzen eman behar da izena, eta autobusa Arrasateko geltokitik irtingo da bihar, zapatua, 16:30ean. Txartelak aurre-salmentan daude Iratzen, 13 eurotan; lekuan bertan, 17 euro kostatuko dira.

ESKORIATZA

► **Zeramikaren Hamabostaldiko 3. Jardunaldia** egingo du Ceramike-k abenduaren 3an Ibarraundin, eta Nevenka Pavic txiletarraren lana erakutsiko dute. Ekitaldira joateko, aldeaz aurretik izena eman behar da 943 79 75 83 telefonoan azaroaren 30a baino lehen.

OÑATI

► **Elikadura jokaeren nahasteen** gaineko informazioa emateko mahaia ipiniko du Acabe elkarteak bihar, zapatua, azoka lekuan, 11:30-13:30.

LEHIAKETAK

ARRASATE

► **Santamasetako kartela** aukeratzeko lehiaketan parte har daiteke. 50x70 zentimetroko kartel bertikalak eskatzen dituzte; derrigorreko testua *2005 Santamasak Arrasate* da.
► **19. Jokin Zaitegi** sariketa deitu dute AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak. Harold Pinterren testu bat itzuli beharko da. Testua honako helbidean dago: www.elkarlanean.com/jokinzaitegi.

ANTZUOLA

■ OLARAN ETXEA

Anneluise eta Anton
Egubakoitza: 22:00.
Tintin eguzkiaren tenpluan
Domeka: 16:30.

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

La madre del novio
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Héro e a rayas
Zapatua: 17:00.

ELGETA

■ ESPALOA ANTZOKIA

Baloia
Domeka: 17:30.
Haz lo que debes
Eguaztena: 21:30.

ESKORIATZA

■ IBARRAUNDI

Ahmed, Alhambra printzea
Domeka: 17:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

Una historia de violencia
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Shrek 2
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Zehaztu gabeko filma
Eguena: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Harry Potter y el cáliz de fuego
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Virgen a los 40
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Harry Potter y el cáliz de fuego
16:30, 19:25, 22:20.
Chicken little
16:30, 18:15, 20:00, 22:30.
El jardinero fiel
17:30, 20:00, 22:30.
El exorcismo de Emily Rose
17:30, 20:00, 22:30.
La piel de la tierra
17:30, 20:00, 22:30.
Elizabethtown
17:30.
Desaparecida
17:30, 20:00, 22:30.
Camaron
20:00, 22:30.

■ FLORIDA-GURIDI

Hermanas
17:30, 20:00, 22:30.
El mejor día de mi vida
17:30, 20:00, 22:30.
Malas temporadas
17:00, 22:30.
Match point
17:00, 19:45, 22:30.
Kiss kiss, bang bang
19:45.
Elsa y Fred
17:30, 20:00, 22:30.
Una canción del pasado
17:00, 22:30.
La vida secreta de las palabras
19:45.
En sus zapatos
17:00, 19:45, 22:30.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

Chicken little
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.
En sus zapatos
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.
Inmersión letal
16:30, 19:00.
La leyenda del zorro
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.
El exorcismo de Emily Rose
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.
Desaparecida
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.
Hostage
22:00, 00:30.
Naina
22:00, 00:30.

Los renegados del diablo
16:30, 19:00.

La monja
22:00, 00:30.

Virgen a los 40
16:30, 19:00.

Harry Potter y el cáliz de fuego
15:50, 19:00, 22:10, 01:10.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Desaparecida
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
La leyenda del zorro
12:15, 17:30, 20:30, 23:45.
Chicken little
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 21:50, 23:40.
Harry Potter y el cáliz de fuego
Egubakoitza eta zapatua:
17:00, 20:15, 23:30.
Domeka: 12:15, 15:30, 18:45, 22:00.
Elizabethtown
17:35, 19:55, 22:15, 00:35.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras
12:15, 15:45.

Charlie y la fábrica de chocolate
12:15, 16:00.

El exorcismo de Emily Rose
12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

Trece entre mil
12:15, 16:15.

Match point
12:15, 15:30, 17:45, 20:10, 22:35, 00:55.

El jardinero fiel
12:15, 16:40, 19:10, 21:40, 00:10.

La novia cadáver
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:25, 00:15.

Virgen a los 40
18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Hostage
Egubakoitza: 15:45, 18:00.
Domeka: 12:15, 22:30.

En sus zapatos
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Inmersión letal
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Princesas
18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD Desaparecida
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

La leyenda del zorro
12:15, 16:30, 19:15, 22:15, 01:00.

Chicken little
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:05, 00:30.

Harry Potter y el cáliz de fuego
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Elizabethtown
12:00, 00:45.

Wallace y Gromit: la maldición de las verduras
12:15, 17:10.

En sus zapatos
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

El exorcismo de Emily Rose
12:10, 17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

Una canción del pasado
19:30, 22:00, 00:30.

Segundo asalto
12:10, 17:10.

El jardinero fiel
19:40, 22:15, 01:00.

La novia cadáver
12:15, 16:30, 18:25, 20:25, 22:25, 00:30.

Inmersión letal
12:10, 17:05, 19:30.

Siete vírgenes
20:35, 22:30, 01:00.

Bibi, la pequeña bruja
12:00, 16:00, 18:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Flores rotas: ●●●● | Una historia de violencia: ●●●● | Match point: ●●●● | El jardinero fiel: ●●●●

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

KRITIKA

LA VIDA SECRETA DE LAS PALABRAS

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Isabel Coixet
AKTOREAK: Tim Robbins, Sarah Polley

La vida secreta de las palabras, Isabel Coixeten proposamen berria, nahiko lan interesgarria da, baina baditu akats batzuk, eta horien ondorioz ez da bere aurreko filmaren, Mi vida sin mi-ren, kalitatera heltzen. Zuzendariak istorio dramatiko bat kontatzen digu berriz, eta iraganak kolpatutako pertsonaiak erabiltzen ditu. Sarah Polley nahitaz hartutako oportetaren petrolio-



plataforma batera erizain lanak egitea doan emakumea da, eta Tim Robbins istripu baten ondorioz denboraldi baterako itsu eta erreta dagoen gizona da.

Bien artean sortzen diren harremanen irudikapenean daude filmaren momentu onenak: bien artean gertatzen den pixkanakako hurbiltze prozesua—gizona berritsua da; neska, aldiz, oso isila—sentikortasunez azalduta dago. Neska ez du bere sentimenduak erakutsi nahi, nahiko misterioa da, eta misterio hori azkenean jakingo dugu, istorioaren bukaera askatzaile ederrean. Aipatzekoa da bi aktore nagusien lana, sinesgarriak egiten dituzte euren pertsonaiak, nahiz eta, tamalez, euren ahotzak entzuteko aukera ez izan (gure pantailetara gaztelaniazko bertsioa bakarrik iritsi da). Hala eta guztiz ere, irudiek ederki islatzen dute pertsonaien artean sortzen diren komunikazioa eta epeltasun giroa.

Filmaren akatsak aipatzekotan, luzeegia dela esan dezakegu. Istorioan

personaia gehiago agertzen dira, baina petrolio-plataformako beste langileek ez dute indarrik, eta ez dituzte istorioa eta personaia nagusiak aberasten; haien intentsitatea eta trinkotasuna baretzeko besterik ez dute balio. Filmean narratzaile lanak egiten dituen haurren garrantzia ondo zehaztu gabe dago, istorioan agertu eta desagertu egiten da irizpide garbirik gabe; eta filmean badaude ere, batez ere hasieran, kamera kokapen eta kamera mugimendu arraro batzuk.

La vida secreta de las palabras-en barnean istorio nagusi on bat dauka, haren trinkotasunari kalte egiten dioten pertsonaia eta gehigarriak inguratuta. Horrela, lortutako emaitza boroildu gabeko lan interesgarria da.

ANTONIO ZABALA

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2005/11/30, astelehenetik igandera. Ez da bateragarria beste promozioekin.



IMMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa erdialdean 180 m².
- Duplexa erdialdean Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 70 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Erdialdea 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 90 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Osintxu 100 m². Berritzeko.
- Erdialdea 97 m². Oso ondo.
- Bolu 85 m². Ondo.
- Zubieta 65 m². Terraza.
- Martoko 85 m². Berrituta.

Antzuola:

- Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
- Sagazti 88 m². Berria.

Elgeta:

- Erdialdea 90 m². Oso ondo.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Erdialdea 160 m². Garajea.
- Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerrea 75 m². Oso ondo.
- Erdialdea 68 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80 m². Ondo.
- Martoko 60 m². Berritzeko.
- San Migel 72 m². Ondo.
- Zubieta 80 m². Oso ondo.
- Duplexa, erdialdean 170 m².
- Azkaruntz 60 m². Eguzkitsua.
- Bolu 84 m². Oso ondo.
- Basarte 70 m². Oso ondo.
- Ozaeta 84 m². Ondo.
- Erdialdea 100 m². Berritzeko.
- Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.

ELGETA:

- 70 m². Berrituta.

SORLAUZE:

- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

Iragarki sailkatuak

943 25 05 01 edo sailkatuak@goiena.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. 96 metro koadro ditu. 652 73 93 86.

Arrasate. Udalpe auzoan, 69 m², hiru logela, egongela, bainugela, sukaldea, bi balkoi. Oso eguzkitsua, bizi izatera sartzeko gertu. Telefonoa: 646 57 95 21.

Bergara. Angiozarren baserri bat salgai, 1.086 m². 626 35 60 89.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiarren. Erabat berritua eta altzariekin. Sukalde jantzia, egongela, hiru logela eta bainugela. Berogailua ere badu. 943 76 93 43 edo 630 65 29 84.

Bergara. Ibargarai kalean. 86 metro koadro erabilgarriak. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. 646 57 95 21.

Bergara. Masterreka. Hiru logela. Kanpoaldera. Jantzia. Garajea erosteko aukera ere

badago. 943 76 18 81 edo 656 78 35 32.

Bergara. Telesforo Aranzadi kalean etxebizitza salgai. 140 m² ditu eta berritua dago. 699 75 45 46.

Donostia. Etxebizitza salgai. 636 46 56 41.

Elgeta. 2. solairua igogailuarekin. Hiru logela. Ganbara. Egoera onean. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan ematen da. 651 70 79 96.

Eibar. Teiltuapea (atikoa) ematen dut errentan. Igo-gailu eta guzti. Toki onean dago. Deitu 22:30ak inguruan. 678 82 29 95.

Oropesa. Marina D'Or-en apartamentua errentan ematen da. 652 73 94 88 edo 685 75 62 51.

Vera (Almeria). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan. Jantzia. Igerilekua. 657 73 94 25.

ARETXABALETA

ILE APAINDEGI BATEK LAGUNTZAILEA BEHAR DU. 1.200 EURO HILEAN. 635 70 66 02

104. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Bikote batek etxebizitza hartu gura du errentan. Presazkoa. Telefonoa: 626 48 43 42 edo 690 28 78 85.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Garaje itxia. 38 m². 656 73 79 54.

Arrasate. Erdigunean, Olarte kalean. Garaje itxia. 616 70 78 91.

Bergara. Ibargarai kalean garajea errentan ematen da. 943 08 12 54.

3/ LOKALAK

302. EROSI

Eskoriatza. Lokal komertziala edo garaje txikia ero-

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

4/ LANA

siko nuke Olazarren, Santa Anan edo erdialdean. 635 74 34 55.

402. ESKAERAK

Bergara. Neska euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

Bergara. Neska gaztea arratsaldez orduka lan egiteko gertu. 657 89 65 28.

Debagoiena. Asteburuan, okindegi edo gozotegi batean lan egingo nuke. Bergara eta Arrasate inguruan. 669 17 16 09.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Esperientzia: pintura, zurgintza (metala eta PVC), beiragintza eta tabernako zerbitzari. 600 68 03 70.

Gidari lanak egiteko prest nagoen gazte bat naiz. Esperientziaduna. C eta E gidabaimenak ditut. Telefonoa: 667 02 63 71.

OÑATI

KIWIAK SALGAI. IRABAN BASERRIKOAK. 10 KILOKO KAKAK. KALITATE/PREZIO ONA. 943 78 18 32

5/ IRAKASKUNTZA

Psikologo venezuelarra umeak edo adinekoak zaintzeko prest. Graduondoko ikasketak egiten ari naiz EHU eta umeekin lan egin izan dut. Telefonoa: 695 70 11 57 edo 943 76 65 67.

501. JASO

Arrasate. 1. mailako Ingeniaritza ikasleak eskola partikularrik hartuko lituzke. 686 82 62 92.

Bergara. Aleman eskolak hartuko nituzke. Oinarriko maila. Deitu telefono honetara: 656 54 60 47.

502. EMAN

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrik emateko prest. Hainbat ikasgai. Maila guztiak. Esperientzia handia. Telefonoa: 630 71 35 83.

Arrasate. Lehen Hezkun-

SALGAI

KONPRESOREA ETA FENWICKA SALGAI. 943 79 81 99

tzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrik ematen dira. Esperientzia handia. 658 70 67 84.

Arrasate. Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako eskola partikularrik ematen ditut. Irakaskuntzan tituladuna eta esperientziaduna. Itxaso. Deitu telefono honetara: 652 73 14 44.

Bergara. Ingelesko eskola partikularrik ematen ditut. 690 20 54 75.

Bergara. Lehen Hezkuntzako, DBHko eta 1. eta 2. mailako eskola partikularrik ematen dira. Irakasle ikasketak egin ditut. Deitu telefono honetara: 943 76 12 49 edo 635 20 76 90.

6/ MOTORRA

601. SALDU

California Coach furgoneta salgai. 1996koa. Oso ondo zaindua. 86.000 km. 19.000 euro. 618 05 39 55.

Fiat Tipo autoa. 1.600 euro. 656 74 80 47.

Gas-gas 250 Enducross motorra salgai. 2000koa. Matrikulatua. IAT 2009ra arte. 2.500 euro. 675 17 43 89.

Hypermobil 564 autokarabana salgai. 136.000 km. Turbo diesela. 6 toki egunez eta 4 gauzez. Ondo zaindua. 945 44 52 67.

Malaguti Firefox motorra salgai. 750 euro. Deitu telefono honetara: 678 33 05 19.

Mercedes 190 E salgai. 120 ZP. Direkzio lagundua, beira-igogailu elektrikoak, ateen ibitura zentralizatua, gurpil berriak. SS-AK. 3000 euro. 679 24 89 72.

Mitsubishi Montero IO 2.0 GDI mendiko autoa salgai. 60.000 km. 5 ate. Ondodago. 12.500 euro. Gorka. 657 71 01 61.

Scooter Honda Phanteon salgai. 150 cm³ eta 13.700 km ditu. Matrikula BI-CU. Oso ondo zaindua. (Jabi). Deitu telefono honetara: 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

Volkswagen Golf GT autoa salgai. 100 zaldi ditu eta egoera onean dago. Telefonoa: 656 75 49 25.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Artzain txakurra opari egiten dut. Izan ere, ezin dugu behar bezala zaindu. 699 15 81 73.

802. EROSI

Bigarren eskuko soinu txikia (trikitixa) erosi nuke. Ane. 616 19 11 01.

Billete zaharrak eta txanponak erosten ditut. Mota guztiak. Deitu telefono honetara: 945 44 50 44.

Trek 2300 Alpha SLR. US Postal taldeko koloreekin margotuta. 550 euro. Telefonoa: 661 33 85 63.

Eskiatzeko traje gorria salgai. 4-6 urteko haurrentzako da. Eskularruak oparitzen dira. 15 euro. Deitu telefono honetara: 687 01 79 82.

Forfaita. Hamalau eguneko forfaita salgai. Formigaleko estazioa (Aramon). Telefonoa: 669 94 67 77.

Hezegailua salgai. Haurren logelari jartzeko da. 20 euro. 687 01 79 82.

Hozkailua saltzen dut. Agustina. Deitu telefono honetara: 943 76 50 26.

Liburua. Estivil medikuak idatzitako "Duermete niño". Hiru euro. 687 01 79 82.

Mahaia. Sukalderako. 90x90 zentimetro. Luzatekoa. Egurrezkoa. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

PlayStation 2 salgai. Bi aginte eta lau joko: Atlantis, Ace Combat 3, NBA 2005 eta Eye Toy Play kamerarekin. 200 euro. Deitu telefono honetara: 605 72 38 97.

Reflex argazki kamera salgai. Canon EOS 500 eta 28-8 mm-ko objektiboa. Zorroa eta litio pilak barne. Oso gutxi erabilia. Ondo zaindua. 120 euro. Deitu telefono honetara: 606 72 23 85.

Sofa. Relax markakoa eta beix kolorekoa. Deitu telefono honetara: 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

COMO AGUA PARA CHOCOLATE

Ados Teatra

ANTZERKIA

Non: Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz: Azaroaren 27an, domekan, 19:30ean.

Sarrera salmenta

kutxa SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
943 00 12 00
www.kutxa.net

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN





Agustina Maure eta **Jose Luis Fernandez** bergarrek 50 urte beteko dituzte ezkontuta azaroaren 26an, zapatuan. Zorionak, bioi, familia osoaren partetik!



Milagros Morillas eta **Ildefonso Narvaez** duela 50 urte ezkondu ziren, 1955eko azaroaren 24an, Mancharreal herrian, Jaenen. Urrezko ezteiak domekan ospatuko dituzte Bergaran, senitartekoekin batera egingo duten bazkarian. Zorionak, familiakoen partetik!



Jose Antonio Egurrola eibartarra eta **Maria Anjeles Ibarondo** arrasatearra 1980ko azaroaren 22an ezkondu ziren Arraten, Eibarren. Hala, 25. urteurrena ospatzeko, Karibera bidaia egin berri dute. Zorionak, familiakoen partetik!



Julian Aiastui eta **Ramonita Aretxaga** 50 urte egin dituzte ezkontuta gaur, egubakoitza. Bergarako San Pedro elizan ezkondu ziren. Zorionak, bihotz-bihotzez, familia osoaren partetik!

ESKELA

Mariano Ibeas Moradillo

Arrasaten hil zen 2005eko azaroaren 23an, 99 urte zituela.

*Handi eta mardula
zinen bai gorputzez
itzel eta goxoa
Mariano izateaz,*

*ateak irekita
beti parez-pare
agur eta ohore
diogu bihotzez*



Zure bizilagunak: Koldo, Amaia, Ibai eta Ane.
Arrasaten, 2005eko azaroaren 25ean.

ESKELA

Bixente Urtzelai Heriz

Arrasaten hil zen 2005eko azaroaren 23an, 84 urte zituela.

*Aitteitte, zeure illobok ez zauau
sekule be ahaztuko.*



Asier, Oihane, Iker eta Xabier.
Arrasaten, 2005eko azaroaren 25ean.

ESKER ONA

Bernabe Makatzaga Aldai

Aretxabaletan hil zen 2005eko azaroaren 14an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean. Eskerrik beroenak, batez ere, txistulari taldeari eta Aretxabaleta Abesbatzari.



Aretxabaletan, 2005eko azaroaren 25ean.

ESKER ONA

Jesus Urkiola Lazpiur

Bergaran hil zen 2005eko azaroaren 19an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko azaroaren 25ean.

ESKER ONA

Jesus Coranti Asorey

Bergaran hil zen 2005eko azaroaren 7an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko azaroaren 25ean.

ESKER ONA

Andresa Bikuña Markuleta

Bergaran hil zen 2005eko azaroaren 17an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko azaroaren 25ean.

URTEURRENA

Maria Josefa Eskibel Larrañaga

Lehen urteurrenako meza domekan, azaroaren 27an, 12:00etan, Eskoriatzako Pedro Deunaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Migel Lete Aldai
Marianista apaiza

Kolonbian hil zen 2005eko azaroaren 14an, 79 urte zituela.

Bere aldeko meza domekan, azaroaren 27an, 12:00etan, Aretxabaletako Parrokian.



Aretxabaletan, 2005eko azaroaren 25ean.

Debagoieneko pilota
Pilotaren gaineko **GEHIGARRIA** azaroaren 28an Asteleheneko Goienkarian
Pilotarien argazkiak • Erreportajeak • Iritziak
Asteleheneko Goienkaria **GEHIGARRIAK** Gorde egingo dituzu.

Lau astetan dohan!
Jaso doan Asteleheneko Goienkaria lau astez 902 36 38 51 telefonora deituta.
Gustukoa baduzu, jasotzen jarraitu ahal izango duzu (2006. urteko abendura arte) 36 euro bakarrik ordainduta

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30etara.


Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA



Gorputzeko beste atal batzuetarako tratamenduek ere balio dute izter kanpoalderako.

Izter kanpoaldeko koipea kendu egin daiteke?

Izter kanpoaldeko koipea kentzea posible da. Arazoa zein den aztertu behar da lehenik, eta gero, kasu bakoitzean behar den programa aplikatu. Pasa den astean TERMOTERAPIARI buruz hitz egin nuen; hori izan daiteke kasu batzuetarako sistema egokia. Eman dezagun hanka meheak ditugula eta izter inguruan koipe asko dutela (oso normala 30-35 urte dutenen artean). Bada, kasu horretan ez nuke hasieran, behintzat, termoterapia erabiliko. Lehenengo, **BROSAGGE-ESFOLIAZIO** izeneko teknika erabiliko nuke: azalean keratinatutako zelulek sortzen duten oztopoa apurtu egiten dute; horrela, adipozitoetara (koipez betetako zelulak) hobeto helduko dira lipo-erre-

duktore aktiboak. Horiek gero **ultrasoinuekin** lan egiteko erabiliko ditut, oso eraginkorrak baitira **koipe multzoak apurtu** eta urtzeko. Estetikan erabiltzen ditugun **ultrasoinuak bibrazio izurtauak eragiten dituzten uhinak dira.** Haren onurak energia akustikoa **energia TERMIKO** bihurtuta lortzen dira. Haren frekuentzia soinuarena baino handiagoa da. **Hipodermis** bakarrik sartzen da; horrela, uhin horiek koipe multzoak apurtu egiten dituzte eta **masaje baten laguntzarekin eta/edo drainatze linfatikoarekin** arazoa murriztea lor dezakegu.

Bai, izter kanpoaldeko koipea kendu egin daiteke!



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

| | | | | | |
|----------------------|---------------------|--------------|-----------------------|---------------|-----------------------------|
| | Nafarroako herria | | Pilotan tanto ziuorra | | Neurketatresnen laguntzaile |
| | Ahul, makal | | Portu | | |
| | | | | | |
| | Atziki destinatiboa | | | | |
| | Zor zena ezabatu | | | | |
| Gozoa | Akuri | | | | Nitrogenoa |
| Garaua, bihia | Jauzi, salto | | | | Seigarren fila |
| | | | | Omen | |
| | | | | Yodoa | |
| *Izena | | | | | |
| Mokadu, ahamen | | | | Artsenikoa | |
| | | | | Lerdo, memelo | |
| Norat atzikia | | | Narotasun atzikia | | |
| *Deitura | | | Gizonezko izena | | Nekagarri |
| | | | | | |
| Kontsonante bikoitza | | Apaiz judu | | | |
| Osmioa | | Zen | | | |
| | | Zuzen, tente | | | Tona |
| | | Dauka | | | Errep., gorotza |
| Udako barnetegi | | | | | |
| Jabe, nagusi | | | | | |
| | | | Eginkizun | | |

BILABILA7



UMOREGIROAN

Kike Amonarriz



KAYLA

Senarra besaulkian eserita, mundialetako futbol partida lasai arraio ikusten. Batean emazteak sekulako perka eman dio buruan:
- Zein da Kayla, e? Zein da Kayla?
- Baina zer diozu? Zertaz ari zara?
- Zure galtzetako patriketako batean paper mutur hau aurkitu dut. Zer da hau Mikel, e? Zer da hau? —negarrari ezin utsiz—.

Senarrak papera hartu eta bertan idatzitakoa irakurri du: "Kayla" eta telefono zenbaki bat.

- Emakumea! Baina nola burura dakizkizuke horrelako txorakeriak? Joan den igandean zaldikarrera ikustera joan nintzen... Gogoratzen zara?

- Bai, eta?
- Bada, "Kayla" lasterketan esku hartu zuen zaldi baten izena da eta telefono zenbakia zaldi haren alde apustu egiteko dirua eman zidan lankide batena.

Emaztea lasaitu eta, tentsioak ahazteko, distentsioari ekin diote bie, besaulkian bertan.

Handik bost bat egunera, ordea, Mikel besaulkian eserita pilota partida ikusten ari dela, Amaia berriro atzetik hurbildu eta aurrekoan baino perka handiagoa eman dio, garrasika honako hau esaten dion bitartean:
- Mikel, zoaz agudo telefonoa hartzera, joan den eguneko zaldiak deitzen dizu eta!

SOLUZIOAK

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| N | A | L | . | N | U | V | J |
| U | K | E | L | A | D | U | . |
| T | . | T | U | Z | . | S | O |
| S | A | N | A | . | T | T | . |
| A | N | E | R | U | R | E | P |
| . | I | . | T | . | R | A | . |
| S | A | . | U | A | P | O | K |
| U | K | I | Z | A | P | . | . |
| E | I | . | A | I | Z | A | H |
| N | . | I | U | K | . | Z | . |
| O | K | A | . | . | . | . | . |
| N | K | I | . | . | . | . | . |
| . | P | . | A | . | . | . | . |



Azaroaren 28a: 066 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!


Astelehenean, azaroak 28, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Azaroaren 28ko sariak

- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (saridun bakoitzarendako bi).

- Sei gonbidapen EIBAR-GIJONGO SPORTING futbol partidua ikusteko (saridun bakoitzarendako bi).



DOMINIKAR ERREPUBLIKARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Kuota:

Harpidetza kuota, 36 euro

2006 bukaerara arte.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

065
zozketa

saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak. Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

ECRON discman bat.

- Sandra Rico Amador (Arrasate)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko. Saridun bakoitzarendako bi.

- Karmen Urrutia Larrañaga (Bergara)
- Kristina Azkarate Morras (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. Saridun bakoitzarendako bi.

- Jose Gonzalez Sutil (Arrasate)
- Aitziber Urizar Barrutia (Aramaio)

GOITBERRIAK

Benito Lertxundiren kontzertura joateko sarrerak GOITBn

Abenduaren 2an kontzertua eskainiko du Benito Lertxundik Eskoriatzako kiroldegian. Goiena Telebistak kontzertura joateko aukera eskainiko du, eta horretarako lehiaketa antolatu du. SMSak bidaltzeko aukera izango dute -GTB (hutsunea) Benito- 7505 zenbakira. Deiak 0,90 + BEZa balio du, eta lau sarrera zozkatuko dituzte.








Oñatiko gaztetxearen gaineko mahai ingurua 'Berbaire'-n

Eguenean Oñatiko gaztetxearen gaineko mahai ingurua egingo dute Goiena Telebistan. Oñatiko Udaleko zein gaztetzeko ordezkariek esku hartuko dute. Saioa GOITBren Arrasateko egoitzan grabatuko dute eta eguenean, 23:00etan, emitituko dute. Horrez gainera, asteburuan berriro eskainiko dute Goiena Telebistan.


Bergarako Mujika jantzi dendak neguko moda aurkeztu du

Goiena Telebistaren kameran aurrean egin du neguko modaren aurkezpena Bergarako Mujika jantzi dendak. Oraingo astetik aurrera eta datozen egunotan, ibarreko ikus-entzuleek Mujikaren moda eskaintza ikusteko aukera izango dute GOITBn. Ezkontzeko asmoa dutenek ere traje dotoreak ikusiko dituzte.

GOITBPROGRAMAZIOA

| EGUBAKOITZA, 25 | ZAPATUA, 26 | DOMEKA, 27 | ASTELEHENA, 28 | MARTITZENA, 29 | EGUAZTENA, 30 | EGUENA, 1 |
|---|---|--|--|---|--|--|
|  <p>Langraitzeko kartzelaren egoera 'Behazulo'-n 21:15 Salhaketako Jaime Elias eta Arrasateko preso ohi Joseba Garitaonandia izango dira <i>Behazulo</i> saioko gonbidatuak.</p> |  <p>Ataungo 'Jentilen etorrera' ikusgai arratsaldean 15:45 Ataungo herritarrek egiten duten antzerki herrikoia da <i>Jentilen etorrera</i>. Goierri Telebistak grabatu zuen San Martin jaietan.</p> |  <p>Marrazki bizidunak: hiru orduko bilduma 08:00 Etxeko txikienek aukera polita izango dute aurrerantzean GOITBn. Zapatu eta domeka goizetan marrazki bizidunen bilduma izango da.</p> |  <p>Gonzalo Tejadaren jazz emanaldia 23:00 Jazz musikari donostiarrek Zarautzen eginiko kontzertua eskainiko dugu. Kontrabaxua jotzen du eta zenbait lehiaketa irabazi ditu.</p> |  <p>Afrika Bibang eta Manex Agirre, 'Motzean' 14:15 Afrika Bibang musikariak eta Manex Agirre bertsolariak zenbait sekretu kontatuko dizkigute <i>Motzean</i> saioan.</p> |  <p>'16mm' saioan Euskal Zine eta Bideo Bilera 22:15 Euskal zine eta bideo bilera egin berri dute Lekeition. <i>16mm</i> saioan lehiaketako film labur irabazlea eskainiko dute.</p> |  <p>Gaztetxea mintzagai saio berezian 23:00 Oñatiko gaztetxea berbagai izango da <i>Berbaire</i> saio berezian. Politikarien eta gaztetxeko-en arteko mahai ingurua izango da.</p> |
| <p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ikuskizuna. 14:15 Musika saioa. 14:30 M1: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrrortza. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Behazulo. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Albisteak. 23:15 16 mm.. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.</p> | <p>07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 12:00 Motzean eta Zera dio. 12:15 16 mm. 12:45 Jaun ta jabe. 13:45 Didjeridu. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak. 14:45 Jazz mintegia. 15:45 MKT. 15:45 Ikuskizuna: Ataungo <i>Jentilen etorrera</i>. 17:15 Danbaka. 17:30 Erreportajea. 18:00 Marrazki bizidunak. Bilduma 19:15 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa 19:30 16 mm. "Terminal". 20:00 Behazulo. Langraitzeko kartzelaren egoera. 20:30 Zera dio eta Motzean. 20:45 Ilunpean. 21:15 Didjeridu. 21:45 Ikuskizuna: Elgetako Jazz lehiaketa. 22:15 Behazulo: "Terminal". Egilea: Aitzol Aramaio 23:15 Emisio amaiera.</p> | <p>07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrrortza. 12:00 Didjeridu. 12:30 Eltze beroa. Sukaldaritza saioa. Krepa platano konpotarekin. 12:45 Erreportajea. 13:15 Elkartasun bideak. 13:45 Klip@. Gaur egungo musika taldeen bideoklipak. 14:30 Bidetxurretik. 15:00 Ilunpean. 15:30 Behazulo. 16:00 MKT musika. 16:15 Ikuskizuna: Ataungo <i>Jentilen etorrera</i>. 17:45 Marrazki bizidunak. Bilduma 18:45 Klipak. Musika bilduma. 18:15 Iparrrortza. 18:45 Behazulo. 19:15 Jaun ta jabe eta Motzean. 19:30 Ilunpean. 20:00 Didjeridu. 20:30 16 mm. Aitzol Aramaioaren <i>Terminal</i>. 21:00 Jaun ta jabe. 22:00 Berbaire. 22:30 Didjeridu. 23:00 Emisio amaiera.</p> | <p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Bidetxurretik. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 Danbaka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: Bidegorrieta baserria 18:15 Bidetxurretik. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Berriak. 22:15 Harmailatik. 22:45 Albisteak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera</p> | <p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz mintegia. 14:15 Zera dio. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1. 15:35 Lazkao txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio eta Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: Lekeitioko jaialdia 22:45 Albisteak. 23:15 Erreportajea. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera</p> | <p>13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Motzean. 14:30 M1. 14:35 Lazkao Txiki. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Jaun ta Jabe. 15:30 M1. 15:35 Lazkao Txiki. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz mintegia. 16:15 Klipak. 16:30 M1. 16:35 Lazkao Txiki. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 16mm. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparrrortza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albisteak. 21:15 Jaun ta jabe. 21:45 Berriak. 22:15 Didjeridu. 22:45 Albisteak. 23:00 Berbaire. 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.</p> | |

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95




4x4

aukera zabalena

Saltzeko eta erosteko






Nahi duzun modeloa ez badaukagu, bilatu egingo dizugu

la berriak eta bigarren eskukoak (bost urte baino gutxiagokoak)



4QUATTRO4
Aukerako 4x4 ibilgailuak
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net

EUSKAL OKELA

Kalitateak **saria** dakar

Eusko Label-dun produktuekin osatutako **12 otar**. Harategi bakoitzeko bat.



Harategi bakoitzeko irabazleak



OTAR IRABAZLEA
Mª Asun Urizar
Cillaurre
Zubia harategia
ESKORIATZA



OTAR IRABAZLEA
Jose Mª Alcaide
Gomez
Kortaberri harategia
ARRASATE



OTAR IRABAZLEA
Esther Mollua
Ugarte
Tarsicio harategia
OÑATI



OTAR IRABAZLEA
Cristina Garcia
Sanchez
Azpilikueta harategia
ARAMAIO



OTAR IRABAZLEA
Conchi Mengual
Osuna
Azpilikueta harategia
ARRASATE



OTAR IRABAZLEA
Carmen Lorenzo
Melchor
Azpilikueta harategia
ARRASATE



OTAR IRABAZLEA
Aitor Agirrezabal
Iturbe
Bixain harategia
BERGARA



OTAR IRABAZLEA
Ana Mª Madariaga
Lete
Gabilondo harategia
ANTZUOLA



OTAR IRABAZLEA
Isabel Balzategi
Olazagoitia
Landaluze harategia
ARRASATE



OTAR IRABAZLEA
Mª Jesus Kortabarria
Lezeta
Garai harategia
OÑATI



OTAR IRABAZLEA
Tomasi Aranguren
Beitia
Salegi harategia
ARRASATE



OTAR IRABAZLEA
Rosario Gutierrez
Lopez
Antxon harategia
OÑATI



HARATEGI HAUETAN SOILIK!

ANTZUOLA

- Gabilondo harategia (A)
Kalebarren 14

ARAMAIO

- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE

- Landaluze harategia (A)
Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A)
Bañez dokorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
Antxo Abarka 1

BERGARA

- Andres Mujika harategia (A)
Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
Espoloia 12

ESKORIATZA

- Zubia harategia (A)
Santa Ana 11

OÑATI

- Antxon harategia (A)
San Lorenzo 5
- Tarsicio harategia (B)
Portu 2
- Garai harategia (A)
Maiztaren Lehena plaza 2



(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Eusko Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

(B) BAIMENDUAK: Eusko Okela salitzeko Harategi Baimenduak.

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Iñigo Lizarralde eta Aitor Intza/ Goitibehera zaleak

Nola eraman duzue goitibehera hau Eivissara (Ibiza)? Furgoneta bat alokatu genuen eta ferryan joan ginen Eivissara.

Ze lasterketa zegoen?

Munduko txapeldunek parte hartzen zuten lehiaketa bat, nor bere modalitatean.

Zenbat goitibehera-modalitate daude?

Asko. Adibidez: *gravite-bike* modalitatea bizikletarekin egindakoa da; *street-luge* izenekoan, patinete antzerako batean joaten dira, etzanda; *long-board* modalitatean, zutik joaten dira; *dirt-surf* izenekoan, berriz, bizikletaren gurpil gainean taula bat jarri eta surfeko posturan jaisten dira aldapan behera.

Eta zuena nolako da?

Normalena, hemen gehienak dira horrelakoak. Gomazko gurpilak ditu gureak. Errodamenduen gaineko goitibeherak ere baditu jendek.

Ze neurri ditu?

Araukak agintzen duen neurrikoa da: 2,6 metro luzeran, 1,2 metro zabalera eta 200 kiloko pisua. Bi ardatzen artean 1,5 metro neurtzen du.

Eta abiadura?

120 kilometro orduko abiadura hartu genuen behin, Udala jaisten. Hortik gora ez gara heldu oraindik.

Zeuek egindakoa da?

Ikerlanen egin genuen, hango lagunak lagunduta. Bide batez, eskerrik asko, guztiei.

Zenbatgarren goitibehera duzue?

Bigarrena. Duela bost urte egin genuen lehenengo, eta, hura hobetu guran, hauxe egin genuen duela lau urte inguru.

Zenbat lasterketatan hartu duzue parte?

Aurten hirutan; joan den urtean, bostetan. Eivissan eta Frantzia egin diren lasterketetan egon gara, adibidez, baina normalean hemengoetara joaten gara.

Antolatzen dira hemen horrelako lasterketak?

Nafarroan izugarrizko zaletasuna dago eta lasterketa asko antolatzen dituzte han. Ikustera ere jende asko joaten da. Iruñean izan ginen baten, 5.000 lagun inguru joan ziren ikustera. Bizkaian ere badira zaleak. Gipuzkoan, gutxiago.

Noiz eta non entrenatzen zarete?

Ez gara entrenatzen. Errepidea itxi egin behar da horretarako, eta ezinezkoa da hori. Lasterketa egunean bertan bizpahiru aldiz jaisten dugu ibilbidea. Hala ere, hemen badaude aldapa onak, bai entrenatzeko bai lasterketak egiteko.

Ze janzten duzue goitibeheran ibiltzeko?

Aurrekoa (Iñigo) gerriko batekin lotuta joaten da. Atzekoak (Aitor) larruzko eskularruak, txaketa eta belauetakoak janzten ditu. Eta kaskoa biok, noski.

Izan duzue sustorik?

Txiki batzuk besterik ez.

Ze izen du goitibeherak beste leku batzuetan?

Asturias eta Galizian, adibidez, *carrilanas* izena du eta Katalunian, *caretons*.

“120 kilometro orduko abiadura hartu genuen behin, Udala jaisten”

“Hemen ere badaude lasterketak egiteko moduko aldapak”



► Bergara / 30 eta 32 rte / Eivissan egon dira

PIPERRAUTSA

Franco

Madrilen bizi nintzen diktadorea hil zenean. Eta etxetik asko irten gabe eman nituen lehen ordu eta egunak. Izan ere, han zeuden pilotuta frankismoari eutsi nahi zioten indar guztiak. Eta han erabaki behar zen agintearen banaketa berria, Francok bereari jare egindakoa.

Beldurra zen nagusi Madril, itxaropenaren gainetik. Erregimena ez zen monolitikoa, baina bai artean oso indartsua. Aldiz, oposizioa makal ageri zen, zatikatua eta kalea irabazteko ezgai.

Hain juxtu, bi urte arinago Carrero Blancok hegan egin zuenean, erregimena bera hasi zen mugitzen demokrazia-rantz, Arias Navarro buru zuela. Hutsean gelditu zen ahalegina, baina egunkari batzuetan aukera izan genuen eguzki printzak ikusteko, laino beltzen artean. Ikusmin itzelez jarraitzen zen Tácito taldearen zutabea, *Ya* egunkarian.

Franco hil eta 81eko militar matxinada arte, erregimen zaharrak agindu zuen, nahiz eta bere baitako indarrak borroka bizian aritu. Eta, matxinadarekin, gauzak aski lotuak gelditu ziren betiko: ez zen idatziko frankismoaren kronika beltza, ez ziren araztuko haren egileak, ukiezina izango zen Francok jarritako erregea. Oposizioa hel zitekeen agintera.

Diktadura estali egin zen, eta 30 urte geroago badirudi ez zela existitu ere egin. Baina frankismoaren haziak hor dirau, eta Aznarrek jakin du ongarritzen.

Beldurra ari du berriro Espainian.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
 OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

